

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**IZEN- ETA SEXU-AIPAMENAREN ERREGISTRO
ZUZENKETA BERDINTASUN
MINISTERITZAREN AURREPROIEKTUAN**

GRADU AMAIERAKO LANA

**ZUZENBIDE FAKULTATEA, BIZKAIKO ATALA
ZUZENBIDEKO GRADUA
2021-2022 IKASTURTEA**

Lanaren egilea: **JAIONE SOCAS SAEZ**
Lanaren zuzendaria: **JON ATXUTEGI GUTIERREZ**

Entrega-data: 2022ko maiatzaren 17a.

AURKIBIDEA

| | |
|--|-----------|
| LABURDURAK | 3 |
| 1. SARRERA | 4 |
| 2. ESPAINIAKO ARAUDIAREN BILAKAERA JURIDIKOA | 6 |
| 2.1. Martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruzko aipamen-erregistralaren zuzenketa arautzeko | 6 |
| 2.2. 20/2011 Erregistro Zibilari buruzko Legea | 7 |
| 2.3. Autonomia Erkidegoen arauketa | 12 |
| 3. ESPAINIAKO KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 99/2019 EBAZPENA | 14 |
| 3.1. Aurrekariak | 14 |
| 3.2. Oinarri juridikoak | 15 |
| 3.3. Boto partikularra | 20 |
| 4. “TRANS PERTSONEN BERDINTASUN ERREAL ETA ERAGINKORRERAKO ETA LGTBI PERTSONEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO LEGEA”-RI BURUZKO AURREPROIEKTUAREN ANALISIA | 20 |
| 4.1. Aurrekariak | 20 |
| 4.2. Pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa | 21 |
| 4.2.1. Legitimazioa | 23 |
| 4.2.2. Prozedura | 26 |
| 4.2.3. Efektuak | 28 |
| 4.2.4. Itzulgarritasuna | 29 |
| 4.2.5. Izen aldaketa eta intersexualitatea | 31 |
| 5. ONDORIOAK | 35 |
| 6. BIBLIOGRAFIA | 37 |
| 6.1. Doktrina | 37 |
| 6.2. Jurisprudentzia | 38 |
| 6.3. Web orrialdeak | 39 |

LABURDURAK

AAEE Autonomia Erkidegoak

Adib. Adibidez

AG Auzitegi Gorena

art. artikulua

BJKO Botere Judizialaren Kontseilu Orokorra

EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

EAO Estatuko Aldizkari Ofiziala

EB Europar Batasuna

EK Espainiako Konstituzioa

ENZO Erregistro eta Notaritzaren Zuzendaritza Orokorra

EZ Erregistro Zibila

EZL Erregistro Zibilaren Legea

EZPNI Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko ituna

GEAU Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsala

GEEA Giza Eskubideen Europako Auzitegia

HEH Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena

KA Konstituzio Auzitegia

KZ Kode Zibila

LO Lege Organikoa

NBE Nazio Batuen Erakundea

OGAEH Oinarrizko Giza Eskubideen eta Askatasunari buruzko Europako Hitzarmena

OJ Oinarri juridikoa

orr. orrialdea

PA Probintzia Auzitegia

1. SARRERA

1978ko Espainiako Konstituzioa aldarrikatu zenetik, nortasunaren garapen askerako eskubidea (EK.10.art) eta berdintasun eta bereizkeria eza printzipioak (EK.14.art) Espainiako ordenamendu juridikoaren sustatzaile izan dira sexu-gutxiengo taldeen eskubideen inguruko arauketa sortzerako orduan, horien artean trans pertsonen genero-identitaterako¹ eskubidearen gaineko arauketan alegia.

Urte batzuk beranduago, 1985eko ekainaren 25ean, 8/1983 Lege Organikoa aldarrikatu zen, Zigor Kodearen premiazko erreforma partzialari buruzkoa. Lege honi esker, sexu-aldaketak burutzen zituzten ebakuntzak delitu gisa tipifikatuta egoteari utzi zioten², beti ere pazientearen esanbidezko adostasun askearekin. Hala ere, ez da Espainiako Erregistro Zibilean sexua aldatzeko aukera zabalduko martxoaren 15eko 3/2007 Legea indarrean sartu arte, 1957ko Erregistro Zibilari buruzko legeak (uztailaren 21eko 20/2011 Legeak eguneratu duena) ez baitzuen ia aipamenik egiten sexu aldaketaren inguruan³.

Ondoren, 2007ko martxoaren 26an, NBE-aren Ginebrako egoitzan, Yogyakartako printzipioak⁴ aurkeztuak izan ziren, genero-identitatea eta sexu-orientazioa oinarri duten giza eskubideen bortxaketei buruzko nazioarteko araudia modu egokian aplikatzeko irizpide direnak. Nazioarteko arauketarekin batera, azken urteetan GEEA-k hainbat ebazpen eman ditu trans pertsonen eskubideak babestuz⁵, EB-eko araudia oinarri izanik: OGAEH-ren 8. artikulua, GEAU-ren 12. artikulua eta HEH-ren 3, 8, 16 eta 29. artikulua, beste batzuen artean. Hori dela eta, 3/2007 Legeak eskainitako sexu-aipamen erregistralaren zuzenketari

¹ Horrela definitzen du autore honek genero-identitatearen kontzeptua, PALAU ALTARRIBA, Xabier: *Identidad sexual y libre desarrollo de la personalidad*, Doktore-tesia, Universitat de Lleida, Lleida, 2016, 152. orr.: La noción de “identidad de género” permite entender que el sexo asignado al nacer puede no corresponderse con la identidad de género innata o adquirida que el ser humano desarrolla al crecer. Hace referencia a la experiencia de género interna individual de cada persona, sentida a un nivel profundo, que puede o no corresponderse con el sexo asignado al nacer, e incluye el sentido personal del cuerpo y de otras expresiones de género como la forma de vestir, el habla y los gestos.

² PALAU ALTARRIBIA, Xabier: *Identidad sexual y...*, zit., 132. orr.

³ Ibidem.

⁴ Beste printzipio batzuen artean, 3. printzipioak pertsonalitate juridikoaren aintzatespenerako eskubidea jasotzen du: “[...] La orientación sexual o identidad de género que cada persona defina para sí, es esencial para su personalidad y constituye uno de los aspectos fundamentales de su autodeterminación, su dignidad y su libertad. Ninguna persona será obligada a someterse a procedimientos médicos, incluyendo la cirugía de reasignación de sexo, la esterilización o la terapia hormonal, como requisito para el reconocimiento legal de su identidad de género” (<https://www.refworld.org/cgi-bin/tehis/vtx/rwmain/opendocpdf.pdf?reldoc=y&docid=48244e9f2>, azken kontsulta 2022/5/2).

⁵ Christine Goodwin vs. Erresuma Batuak (GEEA/2002/181176); L. vs. Lituania (GEEA/2007/56).

buruzko arauketa zaharkitua geratu da⁶, ez duelarik bat egiten nazioarteko araudiarekin⁷. Zentzu honetan, 2021eko ekainaren 29ko Ministro Kontseiluan “*Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legea*”-ri buruzko aurreproiektua onartua izan zen, oraindik legebiltzarrean izapidetzen ari dena. Aurreproiektuaren bigarren tituluko lehenengo kapituluan, pertsonen sexuari buruzko erregistro-aipamena aldatzeko prozedura arautzen da, gaur egun indarrean dagoen 3/2007 Legearen hainbat xedapenen erreforma burutuz.

Lan honen helburua aipatutako Aurreproiektuaren analisia burutzea da, zehazki honen II. Tituluaren I. Kapitulari dagokiona, pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa buruzkoa. Izan ere, legebiltzarreko izapidetza hasi baino lehen, aurreproiektu honek kritika anitz jaso izan ditu gizartearen sektore ezberdinetatik, sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko arautzen duen prozeduraren ondorioz. Lan honen bidez, prozeduraren nondik norakoak aztertuko ditugu, horren ahultasunak eta bertuteak agerraraziz.

Horretarako, lehenik eta behin Espainiako ordenamendu juridikoan trans pertsonen⁸ eskubideei buruzko arauketaren bilakaera juridikoa aztertuko da, Erregistro Zibilean izen- eta sexu-aipamenak zuzentzeko araudiaren nondik-norakoak aipatuz: batez ere, 3/2007 Legeari buruz hitz egingo da, pertsonen sexuari buruzko aipamen-erregistralaren zuzenketa arautzen duena, eta 20/2011 Erregistro Zibilaren Legeari buruz. Ondoren, Konstituzio Auzitegiaren 99/2019 ebazpena aztertuko da, adingabeak diren trans pertsonen haien sexu-aipamen erregistrala zuzendu ahal izatea ahalbidetu zuena eta Espainiako ordenamendu juridikoan gai honi buruzko arauketa aldatzea sustatu zuena. Azkenik, Aurreproiektuaren analisia burutuko da, trans pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa egin ahal izateko aurreikusten den prozedura aztertuz, izen-aipamenaren aldaketa burutzeko prozedurarekin batera, gaur egun kolektibo honek eskatzen dituen beharrei egokitzen ote den egiaztatzeko asmoz.

⁶ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: Análisis del Anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI, *InDret*, 3,2021, 278. orr.

⁷ 3/2007 Legearen 4. artikulua sexu-aipamenaren erregistro zuzenketa egin ahal izateko jasotzen dituen eskakizunen artean, genero-disforia ziurtatzen duen mediku-txostenaren beharra eta gutxienez bi urtez tratamendu-medikoa jaso izana itxura fisikoa eskatutako sexuari egokitzeko aurkitzen dira.

⁸ Lan honetan zehar, autore honek egiten duen moduan, SILLERO CROVETTO, Blanca: “La rectificación registral del sexo y nombre de niñas, niños y adolescentes trans: presente y futuro”, *Revista de Derecho Civil*, 2020, 142. orr.: “trans pertsonak” terminoa erabiliko da abenduaren 28ko Andaluziako 8/2017 Legearen 3.b). artikulua jasotzen duen definizioaren barruan jasotzen diren pertsona guztiei erreferentzia egiteko: “*Toda persona que se identifica con un sexo diferente al que le asignaron al nacer, que expresa su identidad sexual de manera diferente al sexo que le asignaron al nacer, así como a quienes definen su género como «otro» o describen su identidad en sus propias palabras*”.

2. ESPAINIAKO ARAUDIAREN BILAKAERA JURIDIKOA

2.1. Martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruzko aipamen-erregistralaren zuzenketa arautzeko

Martxoaren 15eko 3/2007 Legea, pertsonen sexuari buruzko aipamen-erregistralaren zuzenketa arautzen duena, Espainiako estatuaren barnean arlo juridikoan sexu-aldaketa onartzen zuen lehenengo legea izan zen. Ordura arte, Auzitegiek emandako ebazpenek hutsune juridiko hori ordezkatzuz joan ziren, zenbait kasuetan sexu-aipamenaren aldaketa erregistrala onartuz⁹. Legearen hitzaurrean, legegileak errealitate sozial berri bateri erantzuna emateko beharra azaltzen da, transexualitateari alegia, «hasiera batean erregistroan inskribatuak izan ziren sexuarekin bat ez datorren genero-identitatea duten pertsonen nortasunaren eta duintasunaren garapen askea bermatzeko helburuarekin». Era berean, lege honen xedea “Erregistro Zibilean pertsonen sexuari buruzko inskripzioa aldatzea da, inskripzio hori ez datorrenean bat pertsona horren benetako genero-identitatearekin”. Horrez gain, “izen propioa aldatzeko prozedura ere jasotzen du, erreklamaturako sexuaren kontrakoa izan ez dadin”¹⁰.

Nahiz eta lege honek garai hartan aurrera pausu bat eman zuen trans pertsonen eskubideen garapenari dagokionez, erantzun kritiko bat eragin zuen kolektibo honen aldetik. Izan ere, “ez zuen trans pertsonen eskubideen gaineko arauketa osoa eskaintzen, sexuari buruzko erregistro-aipamenaren aldaketari buruzko kontuak bakarrik ikutzera mugatzen baitzen”¹¹, pertsonen identitateak erregistro-aipamen soil bat baino askoz gehiago barne hartzen duelarik. “Kritika gehien jaso zituzten gaiak eredu patologizatzaile baten jarraipena eta onartutako eskubideen titulartasuna izan ziren”¹².

Alde batetik, 3/2007 Legearen 4. artikulua, sexuari buruzko aipamen-erregistralaren aldaketa egikaritu ahal izateko baldintza gisa trans pertsonak genero-disforia¹³ diagnostikatua izatea eta gutxienez bi urtez itxura fisikoa eskatu nahi den sexuari egokitzeko

⁹ 1987ko uztailaren 2ko AG-ren 8700/1987 ebazpena (ECLI:ES:TS:1987:8700).

¹⁰ 3/2007 Legearen aurrehitzak azaltzen duen moduan.

¹¹ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: “El derecho a la identidad sexual de las personas menores de edad”, 2019, *ReDCE*, 32. zk., orri gabe.

¹² *Ibidem*.

¹³ Termino honi buruz eta Osasun Transgeneroaren Mundu Elkargo Profesionala aipatuz, BUSTOS MORENO, Yolanda: “La legitimación de los menores de edad a los efectos del reconocimiento legal de su identidad de género. Estado de la cuestión tras la Sentencia del TC 99/2019, de 18 de julio de 2019”. *Derecho Privado y Constitución*, 2020, 84. orr.: Con este término se hace referencia a la incomodidad o malestar causado por la discrepancia entre la identidad de género y el sexo asignado a la persona al nacer (y el papel de género asociado y/o las características sexuales primarias y secundarias).

tratamendua jaso izana” eskatzen zuen¹⁴. Beste aldetik, legearen 1. artikulua, sexu-aipamena zuzentzeko legitimazio aktiboa “jarduteko gaitasuna duten eta adinez nagusiak diren espainiarrei” mugatzen zien, adingabeak eta atzeritarrak sexuaren erregistro-zuzenketa burutu ahal izatetik kanpo utziz¹⁵.

2017. urtean, legebiltzar-talde Sozialistak 3/2007 Legeari buruzko erreforma proposamena aurkeztu zuen Diputatuen Kongresuan¹⁶. Erreforma proposamenak adingabeek izena eta sexuari buruzko aipamen-erregistrala zuzendu ahal izatea eta horretarako baldintzak malgutzea barnebiltzen zituen, beste gauza batzuen artean. Urte bat beranduago, Unidos Podemos-En Comú Podem-En Marea legebiltzar-taldeak beste lege-erreforma proposamen bat aurkeztu zuen kongresuan, trans pertsonen eskubideen gaineko arauketa askoz zabalagoa barnebiltzen zuena¹⁷. Beste gai batzuen artean, 16 urtetik gorako adingabeek sexuari buruzko aipamen-erregistrala aldatzeko eskubidea aitortzen zuen, aipamen berria “emakumezkoa”, “gizonezkoa” edo “genero ez-binarioa” izan zitekeelarik. Hala ere, bi proposamenak alde batera geratu ziren 2019ko apirilean Gorte Orokorrek disolbatu eta hauteskunde berrietarako deialdia egin zenean¹⁸.

2.2. 20/2011 Erregistro Zibilari buruzko Legea

Espainiako Erregistro Zibila uztailaren 21eko 20/2011 EZL-ren bidez arautzen da, ekainaren 8ko 1957ko EZL-a erreformatu zuena. Lege berri honek, 2021eko apirilaren 30ean osotasunean indarrean sartu zena, hainbat berrikuntza ekarri zituen Erregistro Zibileko izen-zein sexu-aipamena aldatzeko prozesuari dagokionez.

Araudia aztertzen hasi baino lehen, kontuan izan behar dugu izenerako eskubidea nortasunari lotutako eskubideen kategoriaren barruan sartzen dela, egikaritze absolutua eta

¹⁴ Interbentzio kirurgikoaren beharra eskatzen duen baldintza irailaren 17ko AG-ren 5818/2007 ebazpenaren (ECLI:ES:TS:2007:5818) bidez deuseza adierazi zen. Izan ere, Auzitegiaren ustez, arrazoi horregatik aipamen-erregistraralaren aldaketa eskaera ukatzea pertsonen nortasunaren garapen askea mugatzen zuen, Konstituzioak babesten duen norberaren intimitaterako, irudirako eta babes fisiko eta moralerako eskubideak ez errespetatzeaz gain (4. OJ).

¹⁵ Auzitegi Gorenak aurkeztutako 1595-2016 konstituzio-kontrakotasun galderaren ondorioz, 1.1. artikulua konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatu zuen abuztuaren 12ko KA-ren 99/2019 ebazpenak (ECLI:ES:TC:2019:99), “heldutasun nahikoa” duten eta “transexualitatea egoera egonkorrean” dauden adingabeei dagokionez.

¹⁶ Gorte Orokorren Egunkari Ofiziala, Diputatuen Kongresua, XII. Legegintzaldia, B seriea: Lege proposamenak, 2017ko martxoaren 3a.

¹⁷ Gorte Orokorren Egunkari Ofiziala, Diputatuen Kongresua, XII. Legegintzaldia, B seriea: Lege proposamenak, 2018ko martxoaren 2a.

¹⁸ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: “El derecho a...”, zit., orri gabe.

erga omnes indarra izanik¹⁹. Norbanakoa jaiotzen den momentutik izen bat izateko eskubidea aldarrikatzen du HEH-ren 7. artikulua eta EZPNI-ren 24.2. artikulua. Espainiako araudiari dagokionez, 1978ko Konstituzioak ez du izenerako eskubidea jasotzen, Erregistro Zibilerako Legeak zein Kode Zibilak burutzen dutelarik gai honi dagokin arauketa²⁰. 1957ko EZL-ak, ez zuen esplizituki izenerako eskubidea barnebiltzen, baina 20/2011 EZL-ak hau aldatu zuen zehatz-mehatz jasoz 50.1. artikuluan *“Pertsona orok jaiotzen den momentutik izen bat izateko eskubidea du”*²¹. Izena aukeratzeko askatasun printzipioa ezartzen du lege berriak²² eta inskribatutakoa aldatzeko prozedura Erregistro Zibilaren Zuzendariari esleitzen dio, erregistro-prozedura bidez (52. art.).

Aurretik aipatu dugun moduan, jaiotza-inskripzioak izenaz gain jaiotakoaren sexua barneratu behar du. 20/2011 Legeak ez du prozedura zehatz bat arautzen Erregistro Zibilean jaiotza-inskripzioarekin batera ezarritako sexu-aipamena aldatzeko, 91.2. artikulua²³ martxoaren 15eko 3/2007 Legearen 4. artikulua ezarritako baldintzak betetzen diren kasuetan sexu-aipamenaren aldaketa erregistro-prozedura bidez burutuko dela xedatzera mugatzen delarik. Aurreko atalean ikusi dugun moduan, 3/2007 Legearen 1.1. artikulua erregistroko sexu-aipamena aldatzeko eskubidearen titularrak adinez nagusiak diren espainiarrei mugatzen die, nahiz eta Auzitegi Konstituzionalak geroago artikulua honen konstituzio kontrakotasuna adierazi izan zuen²⁴. Arazoa izan zen praktikan lurralde batzuetako Erregistro Zibiletan adinez txikiak ziren pertsona batzuei izen aldaketa onartu zitzailea ohikotasunez erabiltzen zutenagatik txosten medikuek bermatutako igarotze-soziala hasita zuten kasuetan²⁵ eta beste lurralde batzuetan, berriz, ez zitzaien onartu, segurtasun juridikoaren falta sortuz²⁶. Egoera honen aurrean, izena eta sentitutako sexua bat etorri

¹⁹ SERRANO CHAMORRO, M. E. autorea aipatuz, AZNAR DOMINGO, Antonio, SANZ GONZÁLEZ, Alicia: “El cambio de nombre y sexo en el Registro Civil y la disforia de género”, *Revista de Jurisprudencia*, 2021, orri gabe.

²⁰ AZNAR DOMINGO, Antonio, SANZ GONZÁLEZ, Alicia: “El cambio de...”, zit., orri gabe.

²¹ Izenaren inskripzioa jaiotza-inskripzioarekin batera egiten da eta pertsona bereizteko bitarteko gisa erabiltzen da.

20/2011 EZL-ren 49. art.: *“Jaiotza-inskripzioak jaio denaren izena, abizenak eta sexua barnebildu beharko du, eguna, ordua eta lekuarekin batera”*

²² 20/2011 EZL-ren 51. art.: *“Izen propioa askatasunez hautatuko da, eta mugapen hauek baino ez ditu izango, modu murriztailean interpretatuko direnak: 1) Ezin izango dira bi izen soil edo izen konposatu bat baino gehiago jaso; 2) Ezin izango dira ezarri pertsonaren duintasunaren aurkakoak diren izenak, ezta identifikazioa nahasten dutenak ere; 3) Jaiotze ezin izango zaio ezarri bere neba-arrebetatik batek abizen berberekin duen izena, hilda ez badago”*.

²³ 20/2011 EZL-ren 91.2. art.: *“Pertsonen izenari eta sexuari buruzko erregistro-aipamena, Pertsonen sexuari buruzko erregistro-zuzenketa arautzen duen martxoaren 15eko 3/2007 Legearen 4. artikuluko baldintzak betetzen direnean, erregistro-prozeduraren bidez zuzenduko da. Halakoetan, inskripzioak eragingarritasun eratzailera izango du”*.

²⁴ Abuztuaren 12ko KA-ren 99/2019 ebazpenak (ECLI:ES:TC:2019:99).

²⁵ Adib. Lugoko Erregistro Zibilaren 2015eko martxoaren 18ko autoa; Tolosako Lehenengo Instantziako Hirugarren Epaitegiaren 2015eko urriaren 28ko autoa.

²⁶ SILLERO CROVETTO, Blanca: “La rectificación registral...”, zit., 150. orr.

daitezen izen-aipamena erregistroan aldatzeko eskaera egiten den kasuetarako, ENZO-k ebazpen bat eman zuen estatu osoko erregistro-arduradunen irizpideen bateratzea lortzeko asmoz.

*2018ko otsailaren 23ko Erregistro eta Notariotzaren Zuzendaritza Orokorraren Instrukzioak*²⁷, Erregistroan trans pertsonen izen aldaketari buruzkoa, jaiotza-inskripzioan agertzen den sexuarekin bat egiten ez duen izena aldatzeko eskaeren aurrean, “Erregistro Zibilaren arduradunek nola jokatu behar duten zehazteko norabideak ezartzen ditu”. Hitzaurreak, transexualitatea gaixotasun bat izateari utzi²⁸ eta “izaera” gisa kontsideratzen hasteari esker²⁹, “3/2007 Legearen interpretazio zuzentzaile bat egiteko beharra azaleratzen du, momentuko zientzia-medikuak horrela eskatuz”³⁰. Nahiz eta legebiltzarrean 3/2007 Legea aldatzeko lege-proposamen bat izapidatzen ari zen³¹, “egunerokoan ematen ari ziren zenbait egoerei erantzuna emateko beharra azaltzen da, batez ere adingabeak ukitzen dituzten egoeretan”. Izan ere, “adingabearen lehentasunezko interesaren babesari, gainerako interes legitimoen gaintetik dagoena, ordena publikoko printzipioaren izaera eman behar zaio gure ordenamendu juridikoan³², arau juridikoen interpretazioan zein legegintza organoek errespetatuz printzipio hau”³³. Gainera, hitzaurreak azaltzen duen moduan, “instrukzio honetan arautzen diren egoerak bezain garrantzitsua da denbora igarotzeak

²⁷ EAO, 257. zbk., 2018ko otsailaren 24 (BOE-A-2018-14610).

²⁸ BUSTOS MORENO, Yolanda: “La legitimación de...”, zit., 83. orr., Munduko Osasunaren Erakundeak eraturako azken CIE-11-ri buruz: Las categorías relacionadas con las personas «trans» se han eliminado del capítulo sobre trastornos mentales y del comportamiento, lo que significa que las identidades trans están formalmente de-psicopatologizadas en dicho texto. Las categorías transgénero se introducen en un nuevo capítulo denominado «condiciones relacionadas con la salud sexual» en lugar de figurar dentro del capítulo de «trastornos mentales y del comportamiento». El cambio de términos (de «Identity» a «Incongruence») disminuye el estigma asociado al estado mental implicado. Sin embargo, la traducción literal al español por «incongruencia» no parece el más adecuado a estos fines, por lo que se ha propuesto utilizar el término «discordancia».

²⁹ LAMM, Eleonora: “Identidad de género. Sobre la incoherencia legal de exigir el sexo como categoría jurídica”. *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 2017, 254. orr.: Según un informe de Stop Trans Pathologize la exploración de expresiones y trayectorias de género diferentes al género atribuido al nacer durante la infancia no está relacionada necesariamente con una experiencia de sufrimiento o conceptualizada como enfermedad, trastorno o estado necesitado de atención médica. Destacan que en algunos casos, niñ*s con expresiones, trayectorias e identidades de género que difieren del género asignado al nacer pueden requerir asesoramiento psicológico y social acerca del proceso de exploración de expresiones de género o experiencias de discriminación, al igual que sus *adres y otras personas que pertenecen a su entorno social cercano. Para este tipo de apoyo, no sería necesaria una categoría específica en la CIE, sino ante todo la disponibilidad de profesionales con un enfoque no patologizante y abierto a la diversidad de género.

³⁰ 2018ko otsailaren 23ko ENZO-ren Instrukzioaren Hitzaurrea.

³¹ Gaur egun, izapidetza horrek oraindik jarraitzen du “*Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legea*”-ri buruzko aurreproiektuarekin

³² SILLERO CROVETTO, Blanca: “La rectificación registral...”, zit., 149. orr.

³³ Urtarrilaren 15eko 1/1996 Lege Organikoaren 2. artikulua xedatzen duen moduan, Adingabearen Babes Juridikoari dagokiona. Arau horrek, gainera, adingabearen interes gorena interpretatzeko eta aplikatzeko irizpide gisa definitzen ditu kasu bakoitzean, besteak beste, adingabearen garapenerako eskubidearen babesa eta haren premia emozionalak eta afektiboak asetzea eta sexu-identitatea, -orientazioa eta -identitatea babestea.

garapenean eragin itzulezina duela pentsatzea eta horrek adingabearen nortasunaren eraketan kalte larriak saihets ditzaketen neurriak ez atzeratzera behartzen du". Horri gehitu behar zaio adingabearen nahiak, sentimenduak eta iritziak kontuan hartu behar direla eta bere interes gorena zehazteko prozesuan parte hartzeko eskubidea duela bere adinaren, heldutasunaren, garapenean eta bilakaera pertsonalaren arabera³⁴.

Nahiz eta ENZO-ren Instrukzioa argitaratu zen garaian 2011ko EZL-a oraindik indarrean ez egon, hitzaurreak azaltzen duen moduan, Instrukzioa interpretatzerako orduan lege honek jasotzen dituen printzipio juridikoak³⁵ aplikatu behar dira, pertsonalitateari lotutako eskubide sakonenei eragiten dieten heinean. Hala ere, kontuan hartu behar dugu 1957ko EZL-ak, indarrean zegoena momentu hartan, bi arau oso garrantzitsu jasotzen zituela izen aldaketari dagokionez: alde batetik, 2. artikulua xedatzen zuen Erregistro Zibila argitaratutako egitateen froga dela eta beste aldetik, 54. artikulua xedatzen zuen objektiboki pertsona kaltetzen duten izenak, bere identifikazioa nahasgarria egiten dutenak eta sexuari dagokionez errakuntza sortu dezaketenak debekatuta daudela. Hori dela eta, instrukzioa argitaratu zen arte zabalduko interpretazioak ondorioztatzen zuen erregistroko sexu-aipamena aldatu ezin izan duten pertsonen kasuan, ezin dela izen-aldaketa egin pertsonak sentitzen duen beste batengatik, emakume zein gizonei zehaztugabe atxikitu ahal zaizkien izenak soilik onartuz³⁶. Gainera, aipatutako izenerako debekuen arteko kontraesana ematen da, pertsona kaltetzen duten izenak debekatzen baitira aldi berean sexuari dagokionez errakuntza sortu dezaketen izenak debekatuz. Hortaz, bere erregistroko sexu-aipamenarekin bat datorren izen bat erabiltzera behartuko balitz pertsona hori, kalte objektiboa eragiten egongo litzaioko³⁷.

Egoera honen aurrean, instrukzioak bi prozedura ezberdin aurreikusten ditu izen-aldaketa burutzeko eskaera egiten duen pertsonaren arabera: lehenik, jaiotzerakoan ezarri zitzaion sexuarekin bat ez datorren izen-aldaketa adin nagusi batek edo adin txiki emantzipatu batek eskatuko balu, eskaera onartuko da beti ere Erregistro Zibilaren arduradunaren aurrean edo dokumentu-publiko bidez, eskatzaileak eskatutako izenarekin bat datorren sexukoa sentitzen dela adierazten badu, erregistroko sexu-aipamenaren aldaketa burutu ezin duelarekin batera 3/2007 Legearen 4. artikuluko eskakizunak betetzen ez dituelako. "Honek

³⁴ SILLERO CROVETTO, Blanca: "La rectificación registral...", zit., 149. orr., 2018ko otsailaren 23ko ENZO-ren Instrukzioaren hitzaurrea aipatuz.

³⁵ EZL-ren 50.1 artikulua izenerako eskubidea jasotzen du eta 52. artikulua espresuki barnebiltzen du izena aldatzeko eskubidea ohikotasunez erabiltzen den beste batengatik.

³⁶ Instrukzioaren hitzaurreak adierazten duen moduan, argia da irtenbide hori ez dela bat ere ez egokia kontuan hartzen badugu izenerako eskubidea pertsonalitateari estuki lotuta dagoela dela eta ondorioz, norbait behartzea administrazioak atxikitutako izen bat erabiltzera eragin kaltegarria izan dezake pertsona horren garapenean.

³⁷ 2018ko otsailaren 23ko ENZO-ren Instrukzioaren Hitzaurrea.

ekarri zuen adingabe emantzipatuek borondate-adierazpen baten bidez eskatu ahal izatea Erregistro Zibilean inskribatuta dagoen sexuari ez dagokion izen bat esleitzea, sexu-aipamena aldatu beharrik gabe³⁸. Bigarrenik, adingabeen kasuan, bi gurasoek edo tutoreek batera, izen aldaketaren inskripzioa eskatu ahalko dute, Erregistro Zibilean onartua izango dena, beti ere Erregistro Zibileko arduradunaren aurrean edo dokumentu-publiko bidez ordezkariak adierazten badute adingabea modu argian eta ukaezinean eskatutako izenari dagokion sexukoa sentitzen dela. Adingabeak hamabi urte baino gehiago izatekotan, eskaera sinatu beharko du. Edonola ere, Erregistro Zibilaren arduradunak adingabea entzun beharko du bere heldutasun mailara eta adinera egokia den hizkera erabiliz. “Hots, gurasoek edo legezko ordezkariak, ados jarrita eta euren borondate-adierazpenaren bidez, eska dezakete emantzipatu gabeko adingabeari ezartzea Erregistro Zibilean inskribatuta dagoen sexuarekin bat ez datorren izen bat, sexu hori aldatzeko eskatu beharrik gabe³⁹”.

Dena den, otsailaren 23ko ENZO-ren Instrukzioak soilik erreferentzia egiten dio erregistroko izen-aipamena aldatzeko prozedurari, kanpoan utziz sexu-aipamena aldatu nahi duten eta 3/2007 Legearen 1.1. artikulutik kanpo geratzen diren pertsonak, zehazki adingabeei dagokionez. Zentzu honetan, BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO autoreak adierazten duen moduan, “nahiz eta trans pertsonen dagokien eskubideei garrantzia eman nahi izan zaien, Instrukzio baten bidez ezin da 3/2007 Legeak arautzen duena indargabetu, ezta EZL-ak arautzen duena ere⁴⁰”.

Valentziako EZ-ren Arduradun-Magistratuak, 2016ko otsailaren 15eko auto bidez, adintxiki trans baten sexu-aipamenaren aldaketa onartu zuen. Ez da lehenengo aldia adintxiki baten sexu-aipamenaren aldaketa onartzen zela⁴¹, baina “auto honek berebiziko garrantzia hartzen du magistratuak 3/2007 Legearen 1.1. artikulua jasotzen duen titulartasunari buruz egiten

³⁸ SILLERO CROVETTO, Blanca: “La rectificación registral...”, zit., 152. orr.

³⁹ Ibidem.

⁴⁰ BERCOVITZ RODRIGUEZ-CANO autoreak aipatuz, GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: “Comentario de la Sentencia del Tribunal Supremo de 17 de diciembre de 2019 (685/2019)”, *Comentarios a las Sentencias de unificación de doctrina: civil y mercantil*, 2019, 387-398. orr.: los argumentos que se refieren a las necesidades de las personas transexuales merecen respeto, y deberían valer para propiciar el cambio legislativo que se quiere, pero los argumentos jurídicos con los que se pretende adelantar ese cambio legislativo a través de una Instrucción no son válidos para derogar la ley, ni la Ley 3/2007, ni la vigente Ley del Registro Civil. Y es que la interpretación correctora de la ley no puede desconocer que la interpretación debe respetar en todo caso el tenor literal de la norma interpretada («el sentido propio de sus palabras» – art. 3 del Código Civil), so pena de infringirla.

⁴¹ CHRYSALLIS, Asociación de Familias de Menores Trans: Novedades en la rectificación del sexo registral de menores transexuales (<https://chrysallis.org/novedades-en-la-rectificacion-del-sexo-registral-de-menores-transexuales/>, azken kontsulta: 2022/5/3).

duen interpretazioagatik⁴². Egoera nahasgarri honen ondorioz, Auzitegi Gorenaren arlo zibileko Osoko Bilkurak, *2016ko martxoaren 10eko autoaren bidez*, Konstituzio Auzitegiaren aurrean konstituzio-kontrakotasun arazo bat aurkeztea erabaki zuen. Bilkuraren iritziz, 3/2007 Legearen 1.1. artikulua adingabeak sexu-aipamenaren erregistro zuzenketa egiteko aukeratik kanpo uzterakoan, Konstituzioaren 15. artikulua (osotasun fisiko eta moralerako babesa), 18.1. artikulua (intimitaterako eskubidea) eta 43.1. artikulua (osasunerako babesa) urratuko lituzke, 10.1. artikulua jasotzen duen pertsonaren duintasunerako eta pertsonalitatearen garapen askerako eskubideari jarraiki.

2.3. Autonomia Erkidegoen arauketa

Espainiako estatuan genero-identitatea arautzen zuen legedia bakarra 3/2007 Legea izanik⁴³, ENZO-ren 2018ko Instrukzioarekin osatuta, "AAEE-k trans pertsonen identitaterako eskubidearen gaineko arauketa sakonago bat egiten hasi ziren, bere eskuduntzei mugatuta"⁴⁴. Izan ere, Erregistroen antolaketa Estatuaren eskuduntza eksklusiboa da Espainiako Konstituzioaren 149.1.8). artikulua⁴⁵ arautzen duen moduan. Marko juridiko honen aurrean, 2007. urtean, *Andaluziako* Autonomia Estatutuaren erreformak pertsona orororen genero-identitatea eta orientazio sexuala errespetatua izateko eskubidea barneratu zuen⁴⁶. Urte batzuk beranduago, "genero autodeterminaziorako eskubidea" literalki barneratua izan zen Andaluziako AE-ko araudian 2/2014ko Legearen bidez⁴⁷. "Lege autonomiko honek estatuko legediak jasotzen zuen baino genero-identitaterako

⁴² Magistratuaren interpretazioari jarraiki, behin adingabeak bere emantzipazioa inskribatu duela, "3/2007 Legeak eskatzen dituen legitimaziorako baldintzak beteko lituzke", hots adin nagusitasuna. SILLERO CROVETTO, Blanca: "La rectificación registral...", zit., 153. orr.

⁴³ BENAVENTE MOREDA, Pilar: "Menores transexuales e intersexuales. La definición de identidad sexual en la minoría de edad y el interés superior del menor", *RJUAM*, 2019, 289. orr.: ante la ausencia de una Ley Integral de Género, han sido las Comunidades Autónomas inicialmente las que, al legislar sobre el derecho a la Identidad de Género y reconocimiento de los derechos de las personas LGTBI en el ámbito (sea inicialmente) de sus respectivas competencias, han comenzado a decantar la situación en una vertiente imparable a la par que, desde mi punto de vista, bastante descoordinada, regulando por un lado los derechos de las personas trans, incluidos los menores de edad y permitiendo, por otro (no en todas las CCAA como veremos), la posibilidad de que los menores transexuales se identifiquen conforme al género sentido sin necesidad, en algunos casos, de ningún tipo de diagnóstico previo ni tratamiento médico, hormonal o psicológico de tipo alguno.

⁴⁴ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: "El derecho a...", zit., orri gabe.

⁴⁵ EK. 149.1.8). ART.: *Honako gai hauek estatuaren eskumen eksklusibokoak dira: 8) Legegintza zibila; horri kalterik egin gabe, autonomia-erkidegoek zuzenbide zibilak, forudunak nahiz bereziak, iraunarazi, aldatu eta garatu ahal izango dituzte, halakoak direnetan. Edozein kasutan, [...] erregistro eta agerkari publikoen antolakuntza [...].*

⁴⁶ Martxoaren 19ko 2/2007 LO, Andaluziako Autonomia Estatutuarena, 35.art.: *Pertsona orok du bere sexu-orientazioa eta genero-identitatea errespetatua izateko eskubidea. Botere publikoek eskubide horren erabilera bermatzeko politikak sustatuko dituzte.*

⁴⁷ Uztailaren 8ko 2/2014 Legea, Andaluzian pertsona transexualen eskubideak aitortzeko eta genero-identitateagatik ez diskriminatuak izateko (BOE-A-2014-8608).

eskubidearen definizio zabalago bat eskaintzen du⁴⁸, xedatuz genero-identitatea “generoaren barneko eta banakako bizipena da, pertsona bakoitzak sentitzen duen moduan, jaiotza-unean atxikitutako sexuarekin bat etor daitekeena edo ez eta gorputzaren bizipen pertsonala barne hartzen duena. Bitarteko farmakologikoak, kirurgikoak edo bestelakoen bitartez gorputzaren itxura edo funtzioaren aldatzea ekar dezake, betiere modu askean aukeratzen bada” (3. art.).

Beste Autonomia Erkidegoko araudiek ere genero-identitaterako eskubidea jaso izan dute, nahiz eta ez modu hain zabalean: 2/2016 Legea, *Madrileko Erkidegoko* genero-identitate eta -adierazpena eta gizarte-berdintasuna eta diskriminazio ezari buruzko legedia; *Kataluñako* 11/2014 Legea, pertsona lesbianak, gay, bisexualak, transgeneroak eta intersexualen eskubideak bermatzeko eta homofobia, bifobia eta transfobia ekiditekoari buruzkoa; *Kanariar Uharteetako* 8/2014 Legea, genero-identitate arrazoiengatik ez diskriminatzeko eta trans pertsonen eskubideen aitortzari buruzkoa; *Nafarroako* 12/2009 Foru-Legea, genero-identitate arrazoiengatik ez diskriminatzeko eta trans pertsonen eskubideen aitortzari buruzkoa eta abar.

Euskal Autonomia Erkidegoan trans pertsonen eskubideak eta genero-identitaterako eskubidea ekainaren 27ko 9/2019 Legean daude barneratuak, transexualak genero-identitateagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzkoa, ekainaren 28ko 14/2012 Legea aldatzen duena⁴⁹. Legearen 3. artikuluan trans pertsonen definizioa jasotzen da, xedatuz “*Transexualitatea [...] pertsona bati jaiotzean esleitu zitzaion sexua, haren genitalen arabera, ez datorrenean bat pertsona horrek sentitzen duen eta dela badakien sexuarekin. Transexualitatea, beraz, pertsonak askatasunez adierazten duena entzunez baino ezin da ezagutu, eta, sexu-identitatea bezala, ezin da diagnostikatu. Ez da gaixotasun bat, nahasmendu bat edo anomalia bat, giza aniztasunaren parte bat baizik*”. Artikuluaren bigarren atalak autodeterminazio eskubidea jasotzen du, arautuz trans pertsonak mediku-txostenaren beharrik gabe lege honek xedatutakoari heldu ahal izango diotela.

Legea abenduaren 22ko 234/2015 Dekretuarekin osatzen da, pertsona transexualen administrazio-dokumentazioari buruzkoa. Izan ere, 7. artikulua⁵⁰ sexu-aipamenaren

⁴⁸ ALVENTOSA DEL RÍO, Josefina: “La regulación de la identidad de género en las Comunidades Autónomas”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 2015, 753. orr.

⁴⁹ Ekainaren 27ko 9/2019 Legeak soilik aldatu zuen ekainaren 28ko 14/2012 Legearen 3. artikulua, pertsona transexualen terminoari buruzkoa.

⁵⁰ 14/2012 Legearen 7.1. art.: “*Erregelamenduz ezarriko da transexualek, sexua berriro esleitzeko prozesuak irauten duen bitartean, administrazio-agiri egokiak eskuratu ahal izatea, prozesu horretan integrazio hobea izan dezaten eta sufrimenduko edo diskriminazioko egoerak saihestu ditzaten*”.

zuzenketa-prozedurak irauten duen bitartean, trans pertsonak benetako sexuarekin bat egiten duen administrazio-dokumentazio egokia izateko aukera jasotzen du, “identifikazio sistema bikoitza sortuz”⁵¹. 234/2015 Dekretuaren 2. artikuluari jarraiki, administrazio-dokumentazioan sexu-aipamenaren aldaketa eskatu ahalko dute EAE-ren barruan egoitza duen eta aurretik aipatutako 3. artikulua jasotako “pertsona transexuala”-ren definizioaren barruan sartzen den pertsona orok. Dekretuaren 4. artikulua dokumentazioa lortzeko prozedura arautzen du, adingabeei ere aukera zabalduz sexu-aipamenaren aldaketa egiteko, haien ordezkari legalen bidez⁵². Dokumentazio honek sortzen dituen efektuei dagokionez, 6. artikulua adierazten du pertsonak administrazio-dokumentazio berrian ezarritako genero-identitateari jarraiki ezagutzeko eskubidea izango duela bai osasun- zein hezkuntza-arloan, baita administrazio publikoen aurrean.

3. ESPAINIAKO KONSTITUZIO AUZITEGIAREN 99/2019 EBAZPENEA

2016ko martxoaren 23an, *Auzitegi Gorenaren Arlo Zibileko lehenengo Salaren martxoaren 10eko autoak* sarrera izan zuen Konstituzio Auzitegian, 1583-2015 kasazio errekurtsoarekin batera, aipatutako Arlo Zibileko Salak 3/2007 Legearen 1. artikuluari buruzko konstituzio-kontrakotasun galdera planteatzen zuenak.

3.1. Aurrekariak

P.G.A. (aurrerantzean, adingabea) Huescan jaio zen 2002ko martxoaren 20an, eta Huescako erregistro zibilean inskribatu zen emakumezko izen eta sexuarekin. Oso gaztea zenetik adingabeak gizon sentitzen zela eta izen maskulino bat erabiltzea nahiago zuela adierazi zuen, eta horrela onartu zuten bere familia- eta gizarte-ingurunean. 2014an, mediku-talde batek adingabea diagnostikatu zuen: txostenak adierazten du pazienteak fenotipo guztiz maskulinoa duela eta bere rol maskulinoari erabat egokituta dagoela eta

⁵¹ BENAVENTE MOREDA, Pilar: “Menores transexuales e...”, zit., 289. orr.: se fija la posibilidad de que las personas transexuales –incluidos los menores de edad– puedan llegar a identificarse «administrativamente» y dentro del ámbito competencial autonómico correspondiente, conforme al género sentido al margen de la identificación en el Registro Civil conforme a los criterios marcados por la Ley estatal, creando, desde nuestro punto de vista, un doble sistema de identificación que puede resultar cuanto menos problemático.

⁵² Gogoratu behar dugu gaur egun indarrean dagoen 3/2007 Legearen 1.1. artikulua sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa egiteko aukeratik kanpo uzten dituela adingabeak, nahiz eta gero KA-ren 99/2019 ebazpenak “heldutasun nahikoa” duten eta “transexualitate egoera egonkorrean” dauden adingabeei aukera zabaldu zien.

mediku endokrinolari bideratzen zaio hormona-tratamendua agintzeko. Era berean, txostenak Erregistro Zibilean dagokionari jakinarazten dio pazienteak 3/2007 Legeak eskatzen dituen baldintzak betetzen dituela, erregistroan eta dagozkion dokumentuetan izen- eta sexu-aldaketa eskatzeko. Adingabearen gurasoek, adingabearen sexua eta izena erregistroan zuzentzeko eskatuz, bere izenean gobernu-espedita aurkeztu zuten, baina eskaera ez zen izapidetzera onartu interesdunak ez zuelako 3/2007 Legearen 1. artikulua barnebiltzen zuen adin-nagusitasunaren baldintza betetzen. Egoera honen aurrean, interesdunek bide judizialek sustatu zuten erregistro-zuzenketa, baina uzia ezetsi zen adingabeak *ad causam* legitimazio aktiborik ez zuelako. Bide judizialek jarraituz, azkenean arau-hauste prozesalaren ondoriozko aparteko errekurtoa eta kasazio-errekurtoa aurkeztu zituzten, izapidetzeko onartu zituenak AG-ren Arlo Zibileko Salaren autoak⁵³.

2016ko martxoaren 10eko auto bidez, AG-ren Arlo Zibileko Salaren Osoko Bilkurak 3/2007 Legearen 1. artikuluari buruzko konstituzio-kontrakotasun galdera aurkeztea erabaki zuen, EK-ren 15, 18.1 eta 43.1. artikuluen ustezko urraketarengatik, 10.1. artikuluari jarraiki, erregistroko sexu-aipamena aldatzeko ahalmena adinez nagusiak diren pertsonen soilik onartzen dien heinean.

3.2. Oinarri juridikoak

Laburbilduz, Konstituzio Auzitegiak epaian erabaki behar du Erregistro Zibilean inskribatutako sexu-aipamena aldatzeko aukera adin nagusiei erreserbatzeak adingabeen eskubideen murrizketa neurrigabea⁵⁴ eragiten duen ala ez. Horretarako, 1.1. artikulua ukitzen dituen oinarrizko eskubideen eta konstituzio-printzipioen balorazioa egiten du⁵⁵:

⁵³ Adingabearen ordezkartzak AG-ri KA-ren aurrean konstituzio-kontrakotasun galdera aurkeztea eskatu zion 3/2007 Legearen 1 eta 4. artikuluei buruz; hots, sexu-aipamenaren zuzenketa burutzeko legitimazioari eta bi urtez tratamendu medikoa jaso behar izatea eskatzen duen baldintzari buruz. Hala ere, AG-k konstituzio-kontrakotasun galderaren objektutik kanpo utzi zuen 4.1. artikulua azterketa, kasu honetan xedapenak ezartzen dituen baldintzak ez zutelako eraginik errekurtsogilearengan, zeinak dagoeneko justifikatu zuen eskakizun hauetatik salbuetsita zegoela bere adina eta diagnostiko medikuagatik.

⁵⁴ SANCHEZ FREYRE, Juan Manuel: "La mayoría de edad como requisito para la rectificación registral del sexo y el nombre: una cuestión de derechos fundamentales", *Revista sobre la infancia y la adolescencia*, 2018, 48-49. orr.: La limitación del derecho fundamental que comporta la exigencia de mayoría de edad para el cambio de nombre y de la mención de sexo podría considerarse un caso de violencia institucional ejercida sobre los niños o niñas y adolescentes por preverse un marco legal inadecuado por parte de los poderes públicos pues se trata del derecho a la libertad de decidir o mostrarse adscrito a una de las diversas opciones sexuales.

⁵⁵ Otsailaren 7ko Konstituzio Auzitegiaren 60/2010 ebazpena oinarri hartuz.

- a) Ukitutako lehenengo konstituzio-printzipioa pertsonalitatearen garapen askea bermatzen duena izango litzateke⁵⁶ (EK. 10.1. art.). Izan ere, zalantzan jarritako xedapenak adin nagusiei haien sexu-aipamena aldatzeko aukera ematen die, efikazia juridikoa duten eta haien identitateari buruzko erabakiak hartzea onartuz. 3/2007 Legearen zioen azalpenak azaltzen duenez, erregulazio berriaren helburua konstituzio-printzipio honen egikaritzea da. Ondorioz, eskubide honen gozamina adin nagusikoei soilik murrizten bada, adingabeei konstituzio-printzipio honen egikaritzea kentzen zaie, norberaren identitateari⁵⁷ buruz erabakitzeari dagokionez. Murrizketa honek, pertsonaren lehen-mailako adierazpena baldintzatzen du, gizabanakoaren duintasunari nagusiki eraginez. Beraz, auzitan jartzen ari den xedapenak, adingabeei bere identitateari buruzko gai bati buruz modu askean erabakitzea ukatzen dien heinean, eragin murriztailea du EK-ren 10.1. artikulutik ondorioztatzen den pertsonalitatearen garapen askean.
- b) Konstituzio-kontrakotasun galderaren autoak EK-ren 18.1. artikulua babesten duen pertsonaren intimitaterako oinarrizko eskubidea ukitua geratzen dela 1.1. artikulua eragatik baieztatzen du, transexuala dela jakinaraztera behartzen duelako esparru ezberdinetan identifikatu behar den bakoitzean. Konstituzio Auzitegiaren ustez, jaiotzerakoan esleitutako sexuaren eta pertsonak berea bezala sentitzen duen sexuaren arteko baliokidetasun falta, pertsonak gainerakoek ezagutzatik babesteko eskubidea duen zirkunstantzia berezi horietako bat da. Guzti honengatik, auzitan jarritako xedapenak EK-ren 18.1. artikulua babesten duen norberaren intimitaterako eskubidea ere ukatzen du.
- c) Konstituzioaren 15 eta 43. artikuluei dagokionez, Auzitegiak ez du uste auzitan jarritako arauak konstituzionalki babestutako ondasun juridiko hauei eragiten dienik. Izan ere, artikulua hauek ez doaz berregokitze-ebakuntza burutu beharri lotuta edo gorputzari eragiten dion bestelako edozein tratamenduri, Espainiako araudiak ez baitu ebakuntza hau baldintza gisa ezartzen Erregistroko sexu-aipamena aldatzeko.

⁵⁶ Pertsonalitatearen garapen askeari buruz, CARRIÓN VIDAL, Almudena: "Transexualidad y menores", *Revista sobre la infancia y la adolescencia*, 2020, 48. orr.: Este principio [...] implica la posibilidad de realizar aquellos actos necesarios para el desarrollo de la personalidad, por lo que no es, por tanto, una libertad de acción abstracta, sino más bien concreta. Este libre desarrollo encierra, por tanto, una serie de actuaciones referidas a muy diversos ámbitos, necesarias para el crecimiento como persona, entre los que se encuentran aquellos dirigidos a lograr la identidad sexual deseada.

⁵⁷ CERVILLA GARZÓN autorea aipatuz, GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: "Comentario de la...", zit., 392.orr.: El derecho a la identidad de género se encuentra íntimamente relacionado con la dignidad de todo ser humano y su derecho a alcanzar el libre desarrollo de la personalidad. Se constituye la identidad de género como un atributo de la personalidad del sujeto y como un derecho que le faculta para optar por aquella con la que se identifica.

Adingabeen oinarrizko eskubideen titulartasunari eta egikaritzari dagokionez, Auzitegiak baieztatzen du “adingabeak ere oinarrizko eskubideen titularrak direla”⁵⁸. Konstituzioaren 24.1. artikulua edukitik ondorioztatzen den moduan, adingabe orok, heldutasun eta gaitasun nahikoarekin, bere inguru pertsonalari eragiten dion edozein neurri juridikoari buruz bere iritzia emateko eskubidea du, baita jurisdikzio-organoei bere interesak defendatu ditzatela eskatzeko, nahiz eta bere legezko-ordezkaritza egikaritzen dutenek horren aurka egon. Zentzu honetan, RAVETLLAT BALLESTÉ autoreak adierazten duen moduan, “El hecho de que los niños o adolescentes tengan limitada su capacidad de ejercicio en la toma de ciertas decisiones, especialmente a nivel patrimonial, no implica que atendiendo a su edad y estado de madurez, posean capacidad y autonomía para definir su propia identidad”⁵⁹.

Lege-neurrien proportzionaltasun kontrolari buruz, Auzitegiak argi uzten du auzitan jarritako arauak norberaren intimitaterako oinarrizko eskubideari eta pertsonalitatearen garapen askerako konstituzio-printzipioari eragiteak ez duela zertan konstituzio-kontrakoa dela esan nahi. Berriz, konstituzio-kontrakoa izango da oinarrizko eskubideetan eta konstituzio-printzipioetan duen eragin hori neurrigabea denean. Lege-neurri baten proportzionaltasunaren epaiketak bi fasetan burutzen da: lehenik, arauak konstituzionalki zilegia den helburua jarraitzen duela egiaztatu behar da eta bigarrenik, lege-neurriak konstituzionalki zilegia den helburu horretan modu proportzionalan babesten dela aztertu behar da. Era berean, bigarren fasean burutzen den azterketa honek hiru baldintza bete beharko ditu (proportzionaltasun test-a): egokitasun azterketa, beharrezkotasun azterketa eta proportzionaltasunaren zorrotasun azterketa⁶⁰.

Konstituzio Auzitegiak auzitan jarri den neurriak norberaren intimitaterako eskubidea ukitzen duela, pertsonak isilpean gorde nahi dituen inguruabarrak jendaurrean jartzera behartzeagatik, zein norberaren autonomia baldintzatzen duela uste du, adingabeak berea bezala sentitzen duen sexuari jarraiki doan bizitza eta harreman-sozialak izatea galarazten duelako. Aipatutako bi kalte hauek berebiziko garrantzia hartzen dute giza-duintasunari lotutako aspektuei eragiten dietelako, hala nola norberaren identitateari buruzkoak. Guzti honengatik, Auzitegiak uste du aurretik aipatutako bi faseei jarraiki lege-neurriaren konstituzionaltasun kontrola burutu behar dela, proportzionaltasun-testa aplikatuz.

⁵⁸ AK-ren 183/2008 ebazpena; AK-ren 141/2000 ebazpena; AK-ren 154/2002 ebazpena.

⁵⁹ GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: “Comentario de la...”, zit., 397.orr.

⁶⁰ Maiatzaren 9ko Auzitegi Konstituzionalaren 64/2019 ebazpena, 5. ZJ.

Azterketaren lehenengo faseari dagokionez, Auzitegiak egiaztatu behar du Erregistro Zibileko sexu-aipamenaren aldaketa burutzeko aukeratik adingabeak kanpo uztea konstituzionalki garrantzia nahikoa duen eta zilegia den ondasun edo interes bat babestea helburu duela. Bere ustez, adingabearen interes gorena, Konstituzioaren 39. artikulutik ondorioztatzen diren zenbait aurreikuspenei atxikituta doana, eskubide eta printzipio konstituzionalak mugatzen dituzten lege-neurriak hartzeko, konstituzionalki garrantzi nahikoa duen ondasuna da. Hala ere, Auzitegiak zehazten du kasu honetan eskubide edo printzipio konstituzionalaren murrizketak ez duela onurarik ekartzen adingabeentzat.

Azterketaren bigarren faseak, eskubide eta printzipio konstituzionalen murrizketa babestu nahi den ondasun juridikoarekin alderatuz proportzionala ote den aztertzea eskatzen du. Horretarako, neurria egokia (a), beharrezkoa (b) eta proportzionala zentzu hertsian (c) izan behar da.

a) Neurriaren egokitasunari dagokionez, Auzitegiak azaltzen du autoak ez duela argudiorik ematen auzitan jarritako lege-neurriak adingabearen babesari mesede egiten ez dionik pentsatzeko⁶¹. Izan ere, nahiz eta 1.1. artikularen aplikazio-esparrua adingabeei ere luzatzeak haientzat garrantzizko onura ekarriko lukeen, ezin da ukatu auzitan jarritako arauak barnebiltzen duen murrizketak adingabearen interes gorenari⁶² ekarpen positiboa egiten dionik. Batez ere, transexualitateari buruzko adierazpenak ez daudenean guztiz finkatuak. Hortaz, nahiz eta egoera hauetan aurretik aipatutako adingabearen printzipio eta eskubide konstituzionalak mugatzen diren, bere interesaren babes egokiena lortzeko asmoarekin justifikatzen da; presazko erabaki batek ekarri litzakeen ondorio kaltegarriak saihesten baitira.

b) Lege-neurriaren beharrezkotasun azterketari buruz, autoak auzitan jarritako arauak norberaren intimitaterako eskubidearen (EK. 18.1. art.) eta pertsonalitatearen garapen askea bermatzen duen printzipioaren (EK. 10.1. art.) murrizketa eragiten duela argudiatzen du, beharrezkoa ez dena alegia. Autoak osatzen duen argudiaketatik, KA-k ulertzen du kalte gutxien ekarri lezakeen aukera "heldutasun

⁶¹ CARRIÓN VIDAL, Almudena: "Transexualidad y menores", zit., 59. orr.: La Ley 3/2007, aunque aparentemente protectora de los menores de edad, en realidad no es sino una Ley que les perjudica, al coartarles el derecho a solicitar el cambio de sexo, derecho necesario para el desarrollo integral de su personalidad y que pertenece a su ámbito privado e íntimo.

⁶² Adingabearen interes gorenari buruz, GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: "Comentario de la...", zit., 397. orr.: el interés superior del menor transexual se concreta en que se respeten sus derechos fundamentales y se reconozca su derecho a la identidad sexual y con la rectificación de los datos registrales se persigue que los menores no se identifiquen con un nombre y un sexo que no sienten como suyos.

nahikoa” eta “transexualitate egoera egonkorrean” dauden adingabeen kasuan adin-nagusitasunaren baldintza ez aplikatzea izango litzatekeela. Izan ere, auzitan jarritako arauak berebiziko garrantzia duten ondasun juridiko konstituzionalei eragiten die: norberaren intimitaterako eskubidea eta pertsonalitatearen garapen askea bermatzen duen printzipioa, norberaren identitatearekin eta giza-duintasunarekin hertsiki lotutak daudenak.

- c) Azkenik, neurriaren proportzionaltasuna zentzu hertsian baloratzen du Auzitegiak. Auzitegiak azaltzen duen moduan, 1.1. artikulua edukiak bere titulartasunetik kanpo uzten dituen pertsonari aurretik aipatutako ondasun juridiko konstituzionalen mugaketa larria eragiten die. Gainera, mugaketa honek modu larriagotuan eragiten du adingabeak “heldutasun nahikoa” duenean, bere pertsonalitatearen modu askean garatzea ukatzen zaion heinean. Hala ere, mugaketa honek onurak ere ekartzen dizkio adingabeari EK-ren 39. artikulua jasotzen duen babes berezia ematen diolako. Aitzitik, onura hau murrizten joaten da adingabeak heldutasuna lortzen doan heinean; alde batetik, adingabeak urteak betetzearekin batera ulermen maila altuagoa lortzen duelako, babes berezia jasotzeko beharra murriztuz. Beste aldetik, transexualitateari buruzko adierazpena atzera botatzeko arriskua ere murrizten delako adin nagusitasunera gerturatzen denean⁶³. Horregatik, Auzitegiak adierazten du debekua “heldutasun nahikoa” duten eta “transexualitatea egoera egonkorrean” aurkitzen diren adingabeei⁶⁴ ere aplikatzen zaien heinean, xedapenaren konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatu behar dela⁶⁵.

⁶³ MALDONADO autorea aipatuz, GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: “Comentario de la...”, zit., 396. orr.: el proceso de determinación de la identidad sexual es innato al fijarse durante la gestación, y estable, sin que existan casos significativos de «reversión» una vez que el menor hace el «tránsito social».

⁶⁴ CARRIÓN VIDAL, Almudena: “Transexualidad y menores”, zit., 60. orr.: La identidad sexual pertenece a un ámbito privado e íntimo de la persona, y sólo ella por tanto es la que ha de tener la capacidad para decidir sobre esta cuestión, sin que en ningún caso pueda privárseles a los menores, por el mero hecho de serlo, de esta posibilidad si cuenta con la madurez necesaria para adoptar esa decisión de manera responsable. Entiendo, de otra parte, que se exijan otros requisitos como el de una cierta estabilidad, pues es cierto que debe ser un deseo que se mantenga en el tiempo y no un mero antojo propio de la adolescencia, así como el de acreditar que la persona no sufre un trastorno que le haya llevado a decidir algo que es mera consecuencia de su falta de lucidez en un momento dado.

⁶⁵ GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: “Comentario de la...”, zit., 398. orr.: La exclusión de los menores de la aplicación de la Ley 3/2007 es cuanto menos cuestionable y más si tenemos en cuenta los problemas a los que se enfrentan en su vida cotidiana, al poseer una documentación no acorde con su identidad de género, vulnerándose de este modo su derecho a la intimidad. Sin embargo, mientras la ley no se reforme, la situación en la que se encuentran los menores transexuales es de inseguridad jurídica al basarse en las interpretaciones que realizan los tribunales de la norma.

3.3. Boto partikularra

KA-ren 99/2019 ebazpenak Encarnación Roca magistratuaren boto partikularra barnebiltzen du. Magistratuaren ustez, KA-ren lana ez da legegileari adieraztea zein den Konstituzioak eskaintzen dituen aukera guztien artean lege-aukera hobea, baizik eta xedapenaren egokitasun-azterketaren bidez Konstituzioaren babes objektiboa ematea; hortaz, kontserbazio-printzipioa oinarri hartuz, soilik Konstituzioarekin zuzenean talka egiten dituzten xedapenak Espainiako ordenamendu juridikotik kanpo utzi beharko lirateke. Zentzu honetan, Magistratuak argudiatzen du arrazoi nahikoak daudela auzitan jarritako araua konstituzioarekin bateragarria dela defendatzeko, bestelako lege-aukerak konstituzioarekin bateragarriak ere izango liratekeen moduan; proposatutakoa barne. Epaia arauaren konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatuz bukatzen da, baina ez auzitan jarritako xedapenaren deuseztapenarekin, epaitza nahasgarria⁶⁶ eta zehazgabea izanik.

4. “TRANS PERTSONEN BERDINTASUN ERREAL ETA ERAGINKORRERAKO ETA LGTBI PERTSONEN ESKUBIDEAK BERMATZEKO LEGEA”-RI BURUZKO AURREPROIEKTUAREN ANALISIA

4.1. Aurrekariak

Ekainaren 29ko Ministro Kontseiluan, “*Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legea*”-ri buruzko Aurreproiektua onartua izan zen. Aurreproiektu honek Alderdi Sozialistaren eta Unidas Podemos Alderdiaren arteko gobernu-akordioan du oinarria, akordioaren 5.12. puntuan⁶⁷, “Bere dibertsitateaz harro dagoen herrialdea”; gobernuak “Tratu Berdintasunerako eta Diskriminazio ezarako Lege Integrala”, “LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio ezarako Legea” eta “Esparru guztietan trans pertsonen aurkako edozein diskriminazio mota saihesteko modu eraginkorrean lan egiten duen Trans Legea” onartzeko konpromezua hartu zuen. Ildo honetan, hiru ekimen ezberdin aurkeztu izan ziren 2021. urtean zehar: “Tratu

⁶⁶ Magistratuak kritikatzten du epaitza nahasgarria dela, ezin baita jakin “gehigarria” den epai baten aurrean ote gauden, arauaren konstituzio-kontrakotasuna aldarrikatuz legegileak konstituzionalki aurreikusitako behar zuen zerbait aurreikusitako ez duelako, edo “monitorioa” den epai baten aurrean, zeinaren bidez legegileari gomendatzen zaion onuragarriagoa den arauketa bat burutzea. Azken finean, ebazpen interpretatzaile baten aurrean ere egon gintezkeela azaltzen du, zehazteke utziz nork eta nola baloratu beharko den “adingabearen heldutasun nahikoa” eta bere transexualitatearen egonkortasun maila Erregistro Zibilean bere sexu-aipamena aldatu ahal izateko.

⁶⁷ Helbide honetan ikusgai: <https://www.psoe.es/media-content/2019/12/30122019-Coalici%C3%B3n-progresista.pdf> (azken kontsulta: 2022/5/5).

Berdintasunerako eta Diskriminazio ezarako Lege Integrala”-ri buruzko proposamena, urtarrilaren 21ean Alderdi Sozialistak aurkeztutakoa⁶⁸, eta “LGTBI pertsonen aurkako diskriminazio ezarako Legea”-ren eta “LGTBI pertsonen berdintasunerako eta sexu-orientazio, genero-identitate, genero adierazpen edo sexu-ezaugarriengatiko diskriminazio ezarako Legea”-ren zirriborroak, Berdintasun Ministeritzak sortuak, nahiz eta azken bi testu hauek ez zuten izapidetzarik lortu Ministro Kontseiluan⁶⁹. “Azkenean, 2021 ekainaren 29ko Ministro Kontseiluan, Aurreproiektua onartua⁷⁰ izan zen, aurreko zirriborroetan azaldutako gaiak barnebiltzea helburu izanik”⁷¹.

Aurreproiektuaren 1. artikuluari jarraiki, legearen helburua “pertsona lesbiana, gay, trans, bisexual eta intersexualen zein bere familiakideen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eskubidea bermatzea eta sustatzea” da. Horretarako, botere publikoei zuzendutako hainbat neurri aurreikusten ditu, baita neurri zehatzak gizartearen esparru ezberdinetan LGTBI kolektiboaren aurkako diskriminazioa saihesteko. Horrez gain, izen- eta sexu-aipamenak aldatzeko erregistro-zuzenketari buruzko prozedura eta baldintzak arautzen ditu, zein horrek sortu ditzakeen efektuak, eta erregistro-zuzenketatik ondorioztatzen diren neurri bereziak aurreikusten ditu sektore publikoan eta pribatuan. Legearen aplikazio-esparrua (2. art.) “pertsona fisiko eta juridiko orori luzatzen zaio, izaera publikoa edo pribatua izan, eta Espainiako lurraldean bizi, egon edo jarduten duen bitartean, edozein dela bere naziokotasuna, arraza-jatorria edo erlijioa, helbidea, bizilekua, adina, egoera zibila edo administrazio-egoera”.

4.2. Pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa

“Trans pertsonen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko legea”-ri buruzko Aurreproiektuaren II. Tituluko I. Kapitulua, “pertsonen

⁶⁸ Helbide honetan 122/000121 Ekimenaren legebiltzarreko izapidetza jarraitu daiteke: https://www.congreso.es/busqueda-de-iniciativas?p_p_id=iniciativas&p_p_lifecycle=0&p_p_state=normal&p_p_mode=view&iniciativas_mode=mostrarDetalle&iniciativas_legislatura=XIV&iniciativas_id=122%2F000121 (azken kontsulta: 2022/5/5).

⁶⁹ Gobernuaren presidente ordeak prentsaurrian adierazitakoari jarraiki, proposamen honek ez zuen beharrezko segurtasun juridiko nahikoa, genero-autodeterminazioari eta adingabeak diren trans pertsonen dagozkien gaiei buruzko zehaztasuna falta dela eta (https://www.eldiario.es/sociedad/calvo-argumenta-ley-trans-no-preparada-nuevo-igualdad-llevarla-consejo-ministros_1_7264693.html), azken kontsulta: 2022/5/5).

⁷⁰ Aurreproiektua ikusteko, hurrengo helbidean kontsultatu daiteke: <https://www.igualdad.gob.es/servicios/participacion/audienciapublica/Documents/APL%20Igualdad%20Trans%20+LGTBI%20v4.pdf> (azken kontsulta: 2022/5/5).

⁷¹ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 268. orr.

sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketari buruzkoa”, arauketa eguneratu bat aurkezten du Erregistro Zibilean pertsonen izen- eta sexu-aipamenen zuzenketa burutzeko prozedurari dagokionez, gaur egun transexualak diren pertsonen beharrei modu egokiago batean erantzuteko helburua duen eta Europako ordenamendu juridikoak transexualitateari buruz jasotzen duen arauketari gehiago hurbiltzen dena. Aurrera pausu hau Legearen 37.4. artikuluan islatuta ikusi dezakegu autodeterminazio printzipioaren aplikazioarekin bat⁷²; izan ere, “xedapen honek jaiotzerakoan ezarritako sexuarekin desadostasuna eta izapidetza-medikuaren bidezko gorputz-aldaketa egiaztatzen duen txosten mediku eta psikologikoaren beharra alde batera uzten du”⁷³. Berrikuntza hau Europako Batzordeak generoaren legeko aintzatespenari buruz egindako 2020ko txostenaren 2. gomendioan⁷⁴ barnebiltzen da eta Yogyakartako 3. printzipioan ere aipatu egiten da, zeinak estatuak premiatzen ditu ebakuntza, esterilizazioa edo hormona bidezko tratamenduak bezalako eskakizunak saihestera transexualak diren pertsonen berea bezala sentitzen duten generoa onartzeko.

Zentzu honetan, aurretik aipatu dugun moduan, 2017. urtetik hona lege-ekimen ezberdinak aurkeztu dira espainiako ordenamendu juridikoan autodeterminazio printzipioa sartzeko. Lehenengo Lege-proposamena, 2017ko martxoaren 3an Alderdi Sozialistak aurkeztutakoa izan zen⁷⁵. Proposamen honi dagokionez⁷⁶, interesgarria da aipatzea aurkeztu zitaion zuzenketen artean⁷⁷ Alderdi Sozialistak berak proposatutakoa: laugarren artikuluari bigarren atal bat gehitzea, zeinaren bidez interesdunak sexu-aipamenari dagokion erregistro-inskripzioa “zuriz” agertzea eskatzeko aukera zabaltzen den. BENAVENTE MOREDA autoreak adierazten duen moduan, “la justificación de tal enmienda se encuentra en la intención de poner de manifiesto la protección legal frente al binarismo establecido tradicionalmente, para permitir la protección de una realidad, que aunque minoritaria, también tiene derecho a ser tenida en cuenta, sin que se pueda obligar a hacer constar

⁷² DE LORA, Pablo: El laberinto del género: sexo identidad y feminismo, Alianza, Madril, 2021, 19. orr.: En la nota informativa que se ha acompañado a la convocatoria de la consulta pública previa a la elaboración de un proyecto normativo consistente [...] el objetivo se expresa del siguiente modo: “[permitir] el cambio registral de sexo sin que el ejercicio de este derecho esté condicionado a la previa modificación de la apariencia o función corporal de la persona a través de procedimientos médicos, quirúrgicos o de otra índole”.

⁷³ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 268. orr.

⁷⁴ Legal gender recognition in the EU: the journeys of trans people towards full equality, Europako Batzordea, 2020, 206-207. orr. (https://ec.europa.eu/info/files/lgbti-study-transgender-people_es, azken konstanta: 2020/5/5).

⁷⁵ Ikusi 15. oin-oharra.

⁷⁶ Proposamenaren zioen azalpenean, hiru helburu azaltzen dira: adingabeak diren trans pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa onartzea, 3/2007 Legearen 4. artikulua ezarritako eskakizunak ezabatzea eta atzeritarrei egoitza-baimenean sexu eta izen aldaketa onartzea.

⁷⁷ Gorte Orokorren Egunkari Ofiziala, Diputatuen Kongresua, XII. Legegintzaldia, B seriea, 91-4 zbk.: 2018ko martxoaren 21.

registralmente como hombre/mujer a quien no se identifica como tal. La enmienda, se apunta, beneficiaría a muchas personas trans que aún están en proceso de transición, a las personas intersexuales que pueden identificarse como hombres y mujeres, y a las personas que se identifican de manera diferentes, como el género fluido o sin género⁷⁸. Hala ere, aurrerago aztertuko den moduan, Aurreproiektuak ez du aukera hau barnebilduko, genero sistema-binarioarekin jarraituz.

Bigarren Lege-Proposamena bi hilabete beranduago aurkeztu zen maiatzaren 12an, Unidos Podemos, En Comú Podem eta En Marea alderdien aldetik⁷⁹. “Proposamenaren egitura aurrekoa baino asmo handiagokoa izan zen, ez baitzuen soilik 3/2007 Legearen 1 eta 4. artikuluen aldaketa aurkezten, LGTBI kolektiboa babesteko bestelako aspektuak ere arautzen zituelarik⁸⁰. Aztertuko dugun lege Aurreproiektu honek “ekimen horien ildo berdina jarraitzen du eta pertsonaren adierazpen soila erregistro-zuzenketa gauzatu ahal izateko baldintza nahikoa dela ulertzen du⁸¹”.

4.2.1. Legitimazioa

Bigarren tituluko lehenengo kapitulua sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa eskatzeko legitimazioarekin hasten da (37. artikulua), hamasei urteko gutxieneko adin-muga ezarriz Erregistro Zibilaren aurrean norberaren kabuz eskaera egiteko. Hamalau urtetik gorako adingabeek bere kabuz aurkeztu ahalko dute erregistro-zuzenketa eskaera, baina bere ordezkari legalen laguntza beharko dute prozesuan zehar. Azken hauek ez balirateke ados egongo adingabearen erabakiarekin, edo haien artean, Kode Zibilaren 300. artikuluari jarraiki⁸², defendatzaile judiziala izendatuko da. Era berean, desgaitasunak dituzten pertsonak ere sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa eskatu ahalko dute, bere kasuan behar dituzten babes-neurriekin.

Sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko legitimazioaren arauketa berri honekin, 3/2007 Legearen 1.1. artikulua ezarritako adin nagusitasunaren baldintza ezabatzeaz gain, desgaitasunak dituzten pertsonak ere sexu-aipamena zuzentzeko bidea zabaltzen zaie. Hala ere, nahiz eta adin nagusitasunaren baldintza ezabatzen den, arauketa berri honek ez du

⁷⁸ BENAVENTE MOREDA, Pilar: “Menores transexuales e...”, zit., 302. orr.

⁷⁹ Ikusi 16. oin-oharra.

⁸⁰ BENAVENTE MOREDA, Pilar: “Menores transexuales e...”, zit., 303. orr.

⁸¹ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 278. orr.

⁸² KZ-ren 300. art.: *Erregistro Zibilean inskribatu beharko dira tutoretza-karguei eta desgaitasuna duten pertsonak laguntzeko neurriak buruzko ebazpen judizialak eta notaritzak agiri publikoak.*

bat egiten uztaillaren 18ko Auzitegi Gorenaren 99/2019 ebazpenak adierazitakoarekin. Izan ere, ebazpen honek “heldutasun nahikoa” duten eta “transexualitate egoera egonkorrean” dauden adingabeei sexu-aipamena aldatzeko aukera galaraztea konstituzio-kontrakoa dela adierazi zuen, eskaera egin ahal izateko inolako gutxieneko adin-muga ezarri gabe. “Gainera, Berdintasun Ministeritzak jatorrian aurkeztutako zirriborroan⁸³ sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa eskatu ahal izateko gutxieneko adin muga hamabi urtekoa zen (ordezkari legalen baimenarekin)”⁸⁴. Aitzitik, legearen erredakzio berri honetan hamabi-hamalau urte tarteko adingabeentzat prozedura ezberdin bat aurreikusten da borondatezko jurisdikzioaren txosten baten bitartez.

Nahiz eta aukera hau ez den 37. artikulua barnean jasotzen, Aurreproiektuaren zazpigarren amaierako xedapenean uztaillaren 2ko 15/2015 Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen aldaketa aurreikusten da, xedatuz II. Tituluan XI. Kapitulua berri baten sorrera burutzen dela, hamabi urte baino gehiago dituzten eta hamalau urte baino gutxiago dituzten pertsonen sexu erregistro-aipamena aldatzeko onespenez judizialari buruzkoa. Borondatezko Jurisdikzioaren txostena izapidetu ahal izateko, adingabeak ordezkari legearen bidez jardun beharko du eta Ministeritza Fiskalaren parte-hartzea derrigorrezkoa izango da. “Txosten honen helburua adingabea jaiotza-inskripzioan ezarri zitaion sexuarekin ados ez dagoela ziurtatzea da, edozein frogarekin dela medio; bere inguruko pertsonen lekuko-aitortzak batik bat”⁸⁵.

Azkenik, 37. artikulua amaieran, transexualitatearen despatologizazioa jasotzen da autodeterminazio printzipioa⁸⁶ integratuz araudian. Izan ere, sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa eskubidearen egikaritzea jaiotza-inskripzioan ezarritako sexuarekiko desadostasuna ziurtatzen duen txosten-mediku zein psikologikoen beharri baldintzatuta egotea debekatzen da, zein gorputzaren itxura edo funtzioa aldatzen duten tratamendu mediko, kirurgiko edo bestelakoen beharra⁸⁷. Hots, pertsonaren adierazpen soilarekin

⁸³ Berdintasun Ministeritzak 2021 otsailaren 2an aurkeztutako zirriborroa ikusteko: https://www.newtral.es/wp-content/uploads/2021/02/2021-02-02_Borrador-Ley-Trans.pdf?x41273 (azken kontsulta: 2022/5/10).

⁸⁴ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 279. orr.

⁸⁵ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 280. orr.

⁸⁶ 2012. urtean, 26.743 Legearen bitartez, Genero Identitateari buruzkoa, Argentina munduan printzipio hau jaso zuen lehenengo herrialdea izan zen. (<http://servicios.infoleg.gob.ar/infolegInternet/anexos/195000-199999/197860/norma.htm>, azken kontsulta: 2022/5/5).

⁸⁷ DURÁN AYAGO, Antonia: “Consideraciones sobre el borrador de anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans”, *The conversation*, 2021, orririk gabe: En este anteproyecto, el Estado deja de ser “intervencionista” y deja paso a que sea el individuo el que,

nahikoa izango litzateke sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa egiteko, aurretik aipatu den moduan, Europar Batasunak emandako txosten eta gomendioei gehiago hurbilduko litzatekeen arauketa izanik. Hori dela eta, “hamabi-hamalau urte tarteko adingabeentzat aurreikusten den prozedura autodeterminazio printzipiotik aldentzen dela esan genezake”⁸⁸. Izan ere, adingabearen egonkortasuna jaiotza inskripzioan ezarri zitzaion sexua ez den beste batekin frogatu beharra, autodeterminazio printzipioaren aurka doan neurria da⁸⁹. ESTEVE ALGUACIL, L. eta NONELL i RODRÍGUEZ, A. autoreek adieratzen duten moduan, “borondatezko jurisdikzio prozedura batek, kasu hauetan, adingabearen heldutasun nahikoa ziurtatzea helburu izan beharko luke, Aurreproiektuak berak dagoeneko aurreikusten duena hain zuzen”⁹⁰.

2022ko apirilaren 20an, Botere Judizialaren Kontseilu Orokorrak Aurreproiektuari buruzko txostena onartu zuen⁹¹. Bertan, aurreproiektuari buruzko hainbat zuzenketa proposamenak onartu dira, autodeterminazio printzipioari eta adingabeen genero-identitateari eragiten diotenak hain zuzen ere. Izan ere, kontseiluaren gehiengoak onartu du pertsona batek bere kabuz sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa eskatu ahal izateko adin-muga hemezortzi urtera arte igotzea. Modu honetan, adin-nagusitasunera arte luzatuko litzateke hamabi-hamalau urte tarteko adingabeentzat aurreproiektuak aurreikusten duen prozedura, onespene-judiziala eskatzen duenak. Horrez gain, kontseiluaren hiru kideek elkartutako-boto bat aurkeztu dute pertsonaren adierazpen soila sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutu ahal izateko arrazoi nahikoa ezin dela izan argudiatuz, jaiotza-inskripzioan ezarritako sexuarekiko desadostasuna egiaztatzen dituzten bitartekoak eskatuz (legegileak egokiak eta beharrezkoak kontsideratzen dituen bitartekoak)⁹².

haciendo uso del libre desarrollo de su personalidad, manifieste quien es, sin tutelas, ante el encargado del Registro Civil de su domicilio.

(<https://theconversation.com/consideraciones-sobre-el-borrador-de-anteproyecto-de-ley-para-la-igualdad-real-y-efectiva-de-las-personas-trans-154674>, azken kontsulta: 2022/5/5).

⁸⁸ DURÁN AYAGO, Antonia: “Consideraciones sobre el...”, zit., orririk gabe.

⁸⁹ Egoera hauetan, Konstituzio Auzitegiaren 99/2019 ebazpenak ezarritako baldintzen aplikazioa irtenbide bat izan litzateke; hots, ziurtatzea adingabeak “heldutasun nahikoa” duela hartzen ari den erabakia eta bere ondorioak ulertzeko.

⁹⁰ Aurreproiektuaren 38.4. art.: “Hemezortzi urtetik beherako eta hamalau urtetik gorako pertsonen kasuan, prozeduran esku hartzen duten guztiek adingabearen interes gorena hartuko dute kontuan une oro. Erregistro Zibilaren arduradunak, eskatutako zuzenketaren ondorio juridikoei buruzko informazioa emango dio, bai eta dagokion informazio osagarri guztia ere, hizkera argi, irisgarri eta bere beharretara egokitutako batean”.

⁹¹ BJKO-ren txostena eta elkartutako-botoak ikusteko: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Consejo-General-del-Poder-Judicial/Actividad-del-CGPJ/Informes/Informe-sobre-el-Anteproyecto-de-Ley-para-la-igualdad-real-y-efectiva-de-las-personas-trans-y-para-la-garantia-de-los-derechos-de-las-personas-LGTBI> (azken kontsulta: 2022/5/15)

⁹² BJKO-ren txostenari buruz argitaratutakoa ikusteko: <https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/En-Portada/El-CGPJ-aprueba-por-unanimidad-el-Informe-al-anteproyecto-de-Ley-para-la-igualdad-real-y-efectiva-de-las-personas-trans-y-para-la-garantia-de-los-derechos-de-las-personas-LGTBI> (azken kontsulta: 2022/5/12)

Zentzu honetan, BJKO-aren iritzia KA-ren 99/2019 ebazpenak ezarritakoaren guztiz kontrakoa da, adingabeak diren trans pertsonen eskubideak mugatuz. Iritzi honek kritika zorrotzak jaso izan ditu trans pertsonen eskubideak babesten dituzten erakunde ezberdinen aldetik⁹³. Hala ere, gogoratu behar dugu BJKO-aren iritziak garrantzi politikoa baino ez duela, bere eskuduntzatik kanpo geratzen delarik trans pertsonen bere kabuz sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa egikaritu ahal izateko izan beharreko adin muga zein eskatu beharreko baldintzei buruz erabakitzea.

4.2.2. Prozedura

Jarraian, pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko prozedura jasotzen da (38. art.). Prozesua tokiko Erregistro Zibileko bulegoaren arduradunaren aurrean legitimatua dagoen pertsonaren agerraldiarekin hasiko da; adingabeen kasuan, haien ordezkari legalen laguntzarekin agertu beharko dira. Agerraldian, Erregistro Zibilaren arduradunak jaiotza-inskripzioan agertzen den sexuarekiko desadostasuna ziurtatzen duen eta hori aldatzeko eskaera jasotzen duen inprimakia erraztuko dio. Sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketarekin batera, izen-aipamena aldatzeko aukera zabaltzen zaio eskatzaileari, Erregistro Zibilaren legeak aurreikusitako izena askatasunez aukeratzeko printzipioak errespetatu beharko dituenak⁹⁴. Zentzu honetan, Aurreproiektuaren seigarren amaierako xedapenaren hirugarren atalak Erregistro Zibilari buruzko 20/2011 Legearen 51.2. artikulua aldatzen du, “identifikazioa nahasgarria egiten duten izenak” debekua ezabatuz. Erregistro Zibilaren arduradunak sexu-aipamenaren zuzenketak ekarriko dituen ondorio juridikoen berri eman beharko dio eskatzaileari, zein prozesuan zehar jaso ditzakeen babes-neurriei buruz. Adingabeen kasuan, informazio hau bere heldutasun-mailara egokia den hizkera erabiliz eman beharko zaio eta prozesu osoan zehar adingabearen interes gorena kontuan izan beharko da. Dagokion informazioa jaso ondoren, sexu-aipamena zuzentzeko lehenengo eskaera gauzatu egingo da.

⁹³ FELGTBI+ erakundearen bozeramaileak adierazi duen moduan: “Un argumento que parte del desconocimiento evidente de la realidad de los menores trans, pues propone una legislación que precisamente genera grave daño a estos menores, al bloquear el reconocimiento de su identidad. Impedir a los menores el cambio registral sólo puede plantearse desde el desconocimiento de los efectos reales sobre la vida y el sufrimiento de los menores trans del no reconocimiento de su identidad, que eleva notablemente su riesgo de suicidio”. (<https://felgtb.org/blog/2022/04/20/el-cgpi-cierra-con-su-informe-el-debate-juridico-sobre-la-autodeterminacion-de-genero/>, azken kontsulta: 2022/5/13)

⁹⁴ Ikusi 21. oin-oharra.

Behin lehenengo eskaera egin dela, Aurreproiektuak gehienez hiru hilabeteko epea ematen dio eskatzaileari eskaria berresteko, bere erabakiaren egiazkotasuna ziurtatu dezan⁹⁵. 38.6. artikulua ezartzen duen hausnarketa epe honen inguruan hitz egiten du 2020ko ekainean Europako Batzordeak egindako txostena: *“Generoaren lege-aintzatespena Europar Batasunean: trans pertsonen berdintasunera jarraitzen duten bidea”*⁹⁶. Txostenak “bizitzaren benetako esperientzia” bezala ezagutzen diren epeen inguruan hitz egiten du⁹⁷; hau da, “sexu-aipamenaren zuzenketa egingo duen pertsonak benetan aldaketa egin nahi duela ziurtatzea helburu duten epe-baldintzak, trans pertsonak epe batean zehar berea bezalako sentitzen duen generoarekin publikoki biziz, baina bere erregistro-inkripzioa eta dokumentazio ofiziala aldatu gabe”⁹⁸. Europako Batzordearen txostenak ezartzen duen moduan, “epe hau gehiegizkoa denean oinarrizko eskubideak urratu daitezke esparru ezberdinetan: osasunean, ikasketetan, familian, lanean eta abar. Bereziki, genero ez-binarioa⁹⁹ duten pertsonen kasuan, epe baten zehar genero zehatz batekin identifikatzen direlaren itxura egitera behartzen baitzaie”¹⁰⁰. Zentzu honetan, 2015 urtetik aurrera indarrean dagoen genero-autodeterminaziorako Maltako¹⁰¹ legea eredu gisa aipatzen du txostenak, sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa prozedura gehienezko bi hilabeteko epean ebazten baitu lehenengo eskaera egiten den momentutik.

Eskaria sinatu ondoren, Erregistro Zibilaren arduradunak gehienezko hilabete bateko epean sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa onartzen duen ebazpena eman beharko du. Hortaz, sexu-aipamenaren zuzenketa egin nahi duen pertsonak lehenengo eskaera egiten duen momentutik, lau hilabeteko epea igaro daiteke erregistro-zuzenketa egikaritzen den arte.

⁹⁵ Aurreproiektuaren 38.6. art.: *Agerraldia egin eta hasierako zuzenketa eskatu eta gehienez ere hiru hilabeteko epean, Erregistro Zibilaren arduradunak zitu egin beharko du legitimazioa duen pertsona, berriro ager dadin eta bere eskaera berrets dezan, bere erabakiak bere horretan dirauela baieztatuz.*

⁹⁶ “Legal gender recognition in the EU: the journeys of trans people towards full equality”, Europako Batzordea, 2020, 115. orr.

⁹⁷ VAN DEN BRINK, Marjolein, DUNNE, Peter: “Trans and intersex equality rights in Europe - a comparative analysis”, autoreak aipatuz, denbora epeei buruz ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 281. orr.: Se conoce con este nombre a los controvertidos requisitos que se imponen en ciertas legislaciones y que tienen como objetivo asegurar que la persona realmente desea realizar su transición de género.

⁹⁸ Horrela definitzen du txostenak “bizitza esperientzia” kontzeptua, “Legal gender recognition...”, zit., 115. orr.: The so-called ‘real-life experience’ (RLE) requires a person to live for a certain period of time in line with their gender identity without official documents to support that identity.

⁹⁹ VAN DEN BRINK, Marjolein, DUNNE, Peter: “Trans and intersex...” zit., autoreak aipatuz, genero ez-binario terminoari buruz ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 282. orr.: El término “personas no binarias” se utiliza como categoría abierta para todas aquellas personas cuya identidad de género no se corresponde con las categorías de hombre o mujer. Así, incluye a personas cuyo género no es exclusivamente femenino ni masculino, es una combinación de ambos o se sitúa entre o más allá de estas categorías.

¹⁰⁰ “Legal gender recognition...”, zit., 115. orr.

¹⁰¹ ACT No. XI of 2015: Gender Identity, Gender Expression and Sex Characteristics (Lege-testua ikusteko https://tgeu.org/wp-content/uploads/2015/04/Malta_GIGESC_trans_law_2015.pdf, azken kontsulta: 2022/5/5).

Zentzu honetan, 3/2007 Legeak ez du hausnarketa eperik ezartzen, baina sexu-aipamenaren zuzenketa egin ahal izateko aldatu nahi den sexuari egokitzeko gutxienez bi urtez tratamendu medikoa jaso izana baldintza gisa ezartzen du 4.1.b). artikulua. “Baldintza hau hausnarketa-eparearen funtzioa ordezkatzeko duela ulertu daiteke¹⁰², azken finean horren helburua eskatzaileak benetan jaiotza-inskripzioan ezarri zitzaion sexua ez den beste bat nahi duela ziurtatzea baita”.

4.2.3. Efektuak

Araudiaren 40. artikulua sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketaren efektuak jasotzen ditu, xedatuz Erregistro Zibilaren arduradunak emandako ebazpena sexu-aipamenaren zuzenketa onartuz eraketa-efektua izango duela Erregistro Zibilean inskribatzen den momentutik aurrera. Era berean, “erregistro-zuzenketak aukera emango dio pertsonari bere izaera berriari dagozkion eskubide guztiak baliatzeko”. 3/2007 Legearen 5. artikulua erredakzio berdina jasotzen du efektuei dagokionez. ESTEVE ALGUACIL, L. eta NONELL i RODRÍGUEZ, A. autoreek adierazten duten moduan, “deigarria da 2007. urtean erabili zen erredakzio berdina erabiltzea erabaki izana. Izan ere, helburua bada erregistro-zuzenketak esparru guztietan efektua izan dezala ziurtatzea, erabili izan den hitz aukeraketak emakumeei soilik dagokion eskubideak daudela eta era berean, gizonei soilik dagokion eskubideak daudela ulertarazten du”.

Era berean, 40. artikulua hiru atalera banatuta dago, sexu biologikoaren ondorio diren egoera juridikoei dagokionez, pertsonak sexu biologikoari dagozkion eskubideak mantenduko dituela xedatzen du. Zentzu honetan, ESTEVE ALGUACIL, L. eta NONELL i RODRÍGUEZ, A. autoreek azaltzen duten moduan, “sexu biologikoari atxikitutako eskubideak amatasunari edo aitatasunari lotutakoak direla ulertzen da; adibidez, haurdunaldia borondatez eteteko eskubidea edo haurdunaldi kasuan lan-babesari buruzkoak, beharrezkoa baita eskubide

¹⁰² SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: “La identidad de género como derecho emergente”, *Revista de Estudios Políticos*, 2015, 87. orr.: Entre la doctrina hay quién se ha extrañado de la ausencia del requisito incluido en otros modelos normativos y que se suele calificar como «test o experiencia de la vida real». Estoy de acuerdo con quienes entienden que el mismo se halla implícito en la evaluación de la disforia de género. Es el caso por ejemplo de Espín Alba (2008): 128-129. Por dicho «test o experiencia» lo que se exige es que la persona se muestre en sociedad con la identidad de género sentida. Desde el punto de vista clínico este test se considera esencial ya que el cambio de sexo provocará consecuencias inmediatas en el entorno del paciente. Sin embargo, y desde una perspectiva del derecho fundamental a la identidad de género, entiendo, tal y como por ejemplo se subraya en la Exposición de Motivos de la Ley andaluza, que «se debe garantizar la autonomía responsable del paciente-usuario transexual frente a los prestadores de servicios de salud, superando definitivamente anacronismos como las terapias «curativas» o el llamado «test o experiencia de vida real»».

hauek egikaritu ahal izateko haurdun geratzeko gaitasuna izatea”. Zentzu honetan, aurretik aipatu dugun Berdintasun Ministeritzak aurkeztutako zirriborroak¹⁰³, ikuspuntu argiago baten bidez arautzen zuen, sexu biologikoari atxikitutako eskubideak erregistroko aipamen jakinetik bereiziz eta eskubide horiek egikaritzeko gaitasuna duten pertsona guztiei aitortuz¹⁰⁴.

Hala ere, sexu-biologikoari atxikitutako eskubide zehatz batzuen inguruan arautzen du aurreproiektuak: alde batetik, aipatutako 40. artikulua hirugarren atalaren hasieran, martxoaren 22ko 3/2007 LO-aren 11. artikuluan¹⁰⁵, gizon eta emakumeen berdintasunari eraginkorrari buruzkoa, emakumeentzako bereziki aurreikusitako ekintza positiboko neurriak gozatzetik at uzten ditu sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutu baino aurretiko egoera juridikoak. Beste aldetik, 40. artikulua laugarren atalak, sexu-aipamenaren aldaketak erregistro-zuzenketa inskribatu baino lehen pertsonak zituen eskubide eta obligazio juridikoei ez diola eragingo xedatzen du, zehazki abenduaren 28ko 1/2004 LO-ak arautzen duenari, Genero Indarkeriaren aurkako Babes Neurriei buruzkoa.

4.2.4. Itzulgarritasuna

Aurreproiektuaren 41. artikulua berrikuntza garrantzitsu bat jasotzen du sexu-aipamenaren erregistro zuzenketa buruz. Izan ere, lehengo aldiz jasotzen da behin lehenengo sexu-aipamenaren erregistro zuzenketa egin dela, bigarren aukera sexu-aipamena berriz ere zuzentzeko. Hala ere, “aukera hau jasotzeko modua ez da egokiena; aurreproiektuak ez du hitz egiten sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko bigarren aukera bati buruz, baizik eta “hasieran Erregistro Zibilean jasota zegoen sexu-aipamen erregistrala berreskuratzeari” buruz”¹⁰⁶. Hots, 41. artikulua “pertsonen sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketaren itzulgarritasuna” titulua jasotzen du, “ulertaraziz lehenengo sexu-aipamenaren erregistro zuzenketa akats bat izan dela edo pertsona damutu egin dela, bigarren edo hurrengo sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketak ez duelarik zertan

¹⁰³ Ikusi 78. oin-oharra.

¹⁰⁴ Adibidez, maiatzaren 26ko 14/2006 Legean, Laguntza bidezko giza-ugalketa teknikei buruzkoa, “emakumeari” egindako aipamen guztiak umeak sabelean hazteko gaitasuna duten trans pertsona guztiei zabaltzen zaie.

¹⁰⁵ 3/2007 LO-aren 11. art.: “1. Con el fin de hacer efectivo el derecho constitucional de la igualdad, los Poderes Públicos adoptarán medidas específicas en favor de las mujeres para corregir situaciones patentes de desigualdad de hecho respecto de los hombres. Tales medidas, que serán aplicables en tanto subsistan dichas situaciones, habrán de ser razonables y proporcionadas en relación con el objetivo perseguido en cada caso”.

¹⁰⁶ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 283. orr

lehenengoaren “itzultze” bat izan”¹⁰⁷. Hau da, bigarren aldiz sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzea” pertsonak berarentzat funtsezkoa den erabakia bezala sentitu dezake, lehenengo erregistro-zuzenketa bezalakoa, norberak bere genero-identitatean bizi dezakeen etengabeko aldaketa-prozesuari lotutakoa”¹⁰⁸.

Zentzu honetan, LITARDO EMILIANO autoreak adierazten duen moduan¹⁰⁹, PLATERO autorea aipatuz, “la identidad es una experiencia compleja que engloba cómo sentimos las cosas que nos pasan, que pueden ir desde si estamos conformando y reafirmando, o no, las expectativas sobre nuestro comportamiento, que se basan en qué atribución hacemos a las categorías mujer y hombre. Puede incluir no sentirse dentro de ninguna de estas dos categorías (mujer/hombre) o sentir la identidad de género opuesta a la señalada. También puede implicar tener actitudes y roles sociales determinados, vestirse con prendas y presentarse socialmente de forma ocasional o permanente de un género distinto al asignado, o vivir todo tiempo en el género elegido. Puede incluir la modificación corporal, o no, a través de hormonas, cirugías menores o mayores. Y puede que se haga a veces o puede que sea un viaje de transición que dura toda su vida”.

Gainera, bigarren sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko jaso den prozedura guztiz desberdina da lehenengoarekin alderatuz. Izan ere, sei hilabeteko gutxieneko epea eskatzeaz gain lehenengo sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa egin denetik, borondatezko jurisdikzio txosten baten bidez onespén judiciala lortu behar izatea eskatzen da bigarren sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutu ahal izateko, 38. artikuluan aurreikusten den erregistro-prozedura, autodeterminazio printzipioan oinarritzen dena, alde batera utziz. Horretarako, zazpigarren amaierako xedapenaren bidez, Borondatezko Jurisdikzioari buruzko Legearen II. Tituluan XI. Kapitulua berri baten sorrera aurreikusten duena, sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa “itzularazteko” nahiaren adierazpenarekin batera, eskatzaileak beharrezkoak kontsideratzen dituen frogak bitartekoak aurkeztu beharko ditu. Era berean, epaileak egokiak ikusten dituen bestelako frogak ere eskatu ahalko ditu¹¹⁰. Zentzu honetan, “ez da argi geratzen zer den eskatzaileak frogatu behar duena

¹⁰⁷ Ibidem.

¹⁰⁸ Ibidem.

¹⁰⁹ LITARDO, Emiliano: “El derecho a la identidad de género. Interpretación y desafío de la Ley 26743”. *Revista de Actualidad. Derecho de familia*, 2018, 19-63. orr.

¹¹⁰ Zazpigarren Amaierako Xedapenaren 26 octies. art.: “1. El expediente, que será de tramitación preferente, comenzará con la presentación de una solicitud en la que la persona interesada manifieste su voluntad de revertir la rectificación registral anteriormente producida. Deberá ir acompañada de los medios de prueba que desee utilizar. 2. Admitida a trámite la solicitud, el Juez citará a comparecencia al solicitante y, en su caso, a sus representantes legales, a las demás personas que estime oportuno, así como al Ministerio Fiscal. 3. El Juez podrá solicitar la práctica de cualesquiera otras pruebas que considere oportunas”.

sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa bigarren aldiz burutu ahal izateko. Gainera, ez da esplizituki debekatzen txosten mediku edo psikologikoak eskatu ahal izatea froga gisa, edo gorputz itxura aldatu behar izatea, 37.4. artikulua egiten duen moduan, zein 12 urtetik gorako adingabeentzat aurreikusten den borondatezko jurisdikzio txostenen kasuan bezala¹¹¹. Prozedura hau guztiz ulergaitza da aurreproiektuak finkatzen dituen helburuekin, autodeterminazio printzipioan oinarrituak¹¹².

4.2.5. Izen aldaketa eta intersexualitatea

ENZO-ren 2018ko urriaren 23ko Instrukzioak araututakoari jarraiki, Aurreproiektuaren 42. artikulua adingabeei izen propioa aldatzeko aukera zabaltzen die sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutu behar gabe. Zentzu honetan, 45. artikulua Administrazio Publikoak, erakunde pribatuak eta edozein pertsona fisiko zein juridiko behartzen ditu adingabearen dokumentu guztiak Erregistro Zibilean inskribatutako izen-aipamen berriarekin igortzera, nortasun-agiri nazionala ez ezik. Azken erabaki hau ez da ulertzen; izan ere, “behin Erregistro Zibilean izen-aipamenaren aldaketa egin dela, zentzuzkoena nortasun-agiri nazionala izen horrekin berriz igortzea izango litzateke”¹¹³. Era berean, adingabeari izen berriari atxikitzen zaion sexuari dagokion tratua ematera behartzen ditu Administrazioak eta pertsona fisiko zein pribatuak. “Erabaki hau hamalau urte baino gutxiago dituzten adingabeentzat aurreikusi dela ulertzen da, sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutu ezin duten kasuan, izena berea bezalako sentitzen duten sexuari jarraiki aldatu nahi dutenean”¹¹⁴.

42. artikulua bigarren atalak, izen berria aukeratzeko debekuak barnebiltzen ditu, xedatuz ezin izango direla bi izen simple baino gehiago ezarri edo bat konposatua, ezta pertsonaren duintasunari kalte egiten dioten izenak edo abizen berdinak dituzten anai-arrebenak. Zentzu honetan, siegarren amaierako xedapenaren hirugarren atalak, uztailearen 21eko 20/2011 EZL-ren 51.2. artikulua aldatzen du, “pertsonaren identifikazioa nahasgarria” egiten duten izenak debekatzen dituen irizpidea ezabatuz. EZL-ren aldaketa honekin, espainiako ordenamendu juridikoan ezarrita dagoen genero-binario sistema gainditzeko aurrera pausu

¹¹¹ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 283. orr.

¹¹² Erredakzio hau Argentinako Genero Identitaterako 26.743 Legearen 8. artikulua berdina da, onespren judiziala eskatzen duen prozedura aurreikusten baitu bigarren edo hurrengo sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko.

¹¹³ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 280. orr.

¹¹⁴ Ibidem.

bat ematen da. SALAZAR BENITEZ autoreak azaltzen duen moduan, “esta exigencia responde al mantenimiento de un sistema sexo-género rígido, plasmado en ese nombre «que no induzca a error en cuanto al sexo», es decir, que en todo caso deje muy clara la pertenencia al masculino o al femenino. La nueva Ley de Registro Civil, la 20/2011, de 21 de julio, eliminó el artículo 54 e introdujo un nuevo artículo 51 en el que, entre los límites legales a la hora de escoger los nombres, se habla de que «no es posible imponer nombres que sean contrarios a la dignidad de la persona ni que hagan confusa su identificación». El problema sigue siendo si la ruptura del eje masculino/femenino continúa provocando dicha «confusión»¹¹⁵.

Hala ere, trans pertsonen eskubideak defendatzen dituzten kolektiboek zein aurretik aipatu dugun BJKO-ren txostenak kritikatu izan dute Aurreproiektuak jarraitzen duen genero eredu binarioa. Izan ere, “sexu-aldaketaren erregistro-zuzenketa burutzerako orduan “emakumezkoa” edo “gizonezkoa” aukerak bakarrik aurreikusten dira, Europako¹¹⁶ beste herrialde batzuetan dagoeneko identifikazio dokumentu ofizialetan genero ez-binarioa ezartzeko aukera aurreikusten delarik¹¹⁷. Zentzu honetan, BJKO-ren txostenak hiru aldiz salatzen du aurreproiektuak genero ez-binarioa duten pertsonekin gordetako zuhurtzia, adieraziz: “Si bien la transexualidad se encuentra íntimamente conectada con el derecho a la identidad de género, y aunque este, en su implementación social, tiende a sobrepasar la transexualidad en sí misma - que se mueve en el marco de la binariedad sobre la base de la dualidad sexual genética o biológica-, en la medida en que se abre el paso a considerar, desde planteamientos sociológicos, filosóficos e incluso jurídicos, la alternativa del no binarismo, lo cierto es que el anteproyecto no aborda la transexualidad y la modificación registral de la mención relativa al sexo desde esa perspectiva, lo que en el momento actual parece oportuno [...]”.

¹¹⁵ SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: “La identidad de...”, zit., 88. orr.

¹¹⁶ “Informe al anteproyecto de ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI”, BJKO, 2022, 38. orr.: [...] buena muestra de ello la ofrecen las regulaciones de determinados Estados en las cuales se visibiliza el no binarismo en los documentos oficiales, como sucede en Canadá, donde a partir el 31 de agosto de 2017 se permite identificar el sexo con una X en el pasaporte si el sujeto no se siente identificado e incluido en las categorías hombre/mujer, y como sucede, con anterioridad, en Dinamarca, Malta y Alemania.

¹¹⁷ Honen eredu dugu Argentinako 476/2021 Dekretua, zeinak autodeterminazio printzipioa oinarri izanik, hirugarren genero bat ahalbidetu duen nortasun agiri ofizialetan “X” izenarekin (Dekretua ikusteko <https://www.boletinoficial.gob.ar/detalleAviso/primera/247092/20210721>, azken kontsulta: 2022/5/15).

Era berean, Aurreproiektuak intersexualak¹¹⁸ diren pertsonentzat neurri bereziak aurreikusten ditu, 18 eta 71. artikuluetan jasotzen direnak. Zentzu honetan, 71.2. artikulua aukera zabaltzen die gurasoei jaio-berria den adingabe intersexualaren sexu-aipamen erregistrala urte bateko epean “zuriz” agertzeko. Urte bateko epea igaro ondoren, sexu-aipamenaren inskripzioa derrigorrezkoa izango da eta gurasoek hau eskatu beharko dute; bestela, ezingo zaio adingabeari nortasun agiririk esleitu. “Nahiz eta espainiako ordenamendu juridikoan intersexualak diren pertsonen egiten zaien lehenengo errekonozimendua izan Erregistroaren esparruan, neurriaren efikazia zalantzan jartzen da”¹¹⁹. Izan ere, “argia da urte bateko adinarekin pertsona batek ezin duela objektiboki bere genero-identitatea adierazi edo ezagutu, bere gurasoek erabaki beharko dutelarik zein genero esleitu. Hots, urte bateko epean gurasoek hartu beharko duten erabakia jaiotzerako unean hartu beharko luketeena bezain bidegabea izango da”¹²⁰. Ildo honetan, Europako beste herrialde batzuetan sexu-aipamenaren erregistroa burutzeko epe askoz luzeagoak ezartzen dira: adibidez, Maltako legeak¹²¹ adingabeak hemezortzi urte bete arteko epea zabaltzen du sexu-aipamenaren inskripzioa burutzeko. Era berean, Holandako Kode Zibilak¹²² pertsonaren sexua zehazgabea dela adierazten duen sexu-aipamenaren inskripzioa egitea ahalbidetzen du, bizitza osoan zehar mantendu daitekeen inskripzioa hain zuzen.

Hori dela eta, BJKO-ren txostenak azaltzen duen moduan, “aurreproiektuak intersexualak diren pertsonen sexu-aipamenaren inskripzioa arautzerako orduan, ez du genero-identitaterako eskubidea binarismo genetikoa edo biologikoa gainditzen duen ikuspuntutik eransten”¹²³. Zentzu honetan, Berdintasun Ministeritzak aurkeztutako zirriborroaren bigarren xedapen gehigarriak Gobernuak behartzen zuen Gorte Orokorrei urte bateko epean “genero ez-binarioaren errekonozimendua lortzeko burutu beharreko legegintza aldaketei buruzko txosten bat” igortzera. Horrez gain, “zirriborroaren 13.2. artikulua, interesatuaren eskariz dokumentazio ofizialetik sexu-aipamena alde batera utzi

¹¹⁸ VAN DEN BRINK, Marjolein, DUNNE, Peter: “Trans and intersex...” zit., autoreak aipatuz, intersexualitateari buruz ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 283. orr.: Las personas intersexuales son aquellas que no pueden ser clasificadas de acuerdo con las categorías médicas tradicionales de sexo femenino y masculino. A pesar de la diversidad de circunstancias, la mayoría de ellas no presentan ningún problema de salud física relacionado con esta circunstancia.

¹¹⁹ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 284. orr.

¹²⁰ Ibidem.

¹²¹ Ikusi 97. oin-oharra.

¹²² Holandako Kode Zibila ikusteko: <http://www.dutchcivillaw.com/civilcodebook01.htm> (azken kontsulta: 2022/5/15).

¹²³ “Informe al anteproyecto de ley...”, zit., 115. orr.

ahal izateko beharrezko neurriak hartzeko derrigortasuna ezartzen zuen”¹²⁴. Hori dela eta, ez da ulertzen zergatik aurkeztutako aurreproiektuan ez den inolako aipamenik egin aukera hauei, guztiz alde batera utzi delarik genero ez-binarioaren errekonozimendua lortzeko arauketa.

¹²⁴ ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto...”, zit., 282. orr.

5. ONDORIOAK

Autodeterminazio printzipioak berebiziko garrantzia hartu du gaur egun pertsonalitatea askatasunez garatzeko eskubidea gehien bermatzen duena delako. Izan ere, pertsonak berak dira bere generoa eta nortasuna aukeratzeko dutenak, eta ez estatuak edo autoritate mediku batek. Zentzu honetan, Berdintasun Ministeritzak aurkeztutako aurreproiektuak autodeterminazio printzipioan oinarritzen den arauketa jarraitzen du trans pertsonen eskubideei dagokionez, 3/2007 Legeak eskaintzen duen transexualitateari buruzko eredu patologizatzailea alde batera utziz. Espainiako araudiaren eta Aurreproiektuaren analisia burutu ondoren, hurrengo ondorioak ateratzen ditut:

1. Izen- eta sexu-aipamenen erregistro-zuzenketa burutzeko prozedurari dagokionez, autodeterminazio printzipioaren sarrerak garrantzizko hobekuntzak ekarri ditu trans pertsonen genero-identitaterako eskubideei dagokionez, kolektibo honek denbora luzez erreklamatu izan duena. Izan ere, sexu-aipamenaren zuzenketa burutu ahal izateko eskakizun bakarra pertsonaren nahiaren adierazpena da, tratamendu mediko edo kirurgikoen beharra eta genero-disforia ziurtatzen duten txosten mediku/psikologikoen eskakizuna debekatuz prozedura gauzatu ahal izateko.
2. Adingabeen genero-identitaterako eskubidea ere onartzen da, 16 urtetik gorako pertsona orok bere kabuz sexu-aipamenaren zuzenketa eskatu ahaliko duelarik eta 14-16 urteko adingabeek ordezkari legalen laguntzaren bidez. Era berean, 12 urtetik aurrera, prozedura berezi bat aurreikusten du aurreproiektuak Borondatezko Jurisdikzio Txosten baten bitartez. Nolanahi ere, edozein dela bere adina izen-aipamenaren erregistro-zuzenketa burututzeko aukera zabaltzen zaio pertsona orori. Dena den, nahiz eta adingabeen genero-identitaterako eskubidea onartzen den, aurreproiektuak KA-ren 99/2019 ebazpenean ezarritakoa baino arauketa zorrotzagoa eskaintzen du.
3. Aurreproiektuak eskaintzen duen arauketak ahultasunak ere agerrarazten ditu autodeterminazio printzipioari dagokionez. Zentzu honetan, heldutasun nahikoa duten 12-14 urte bitarteko adingabeentzat aurreikusten den Borondatezko Jurisdikzio Txostenaren bidezko prozedurak berebiziko garrantzia hartzen du adingabearen borondatea sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa burutzeko frogatzen dituen bitartekoak eskatzen dituen heinean, aurreproiektuak jarraitzen duen autodeterminazio printzipiotik aldentuz. Horrez gain, bigarren sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa egiteko aurreikusten den prozedura ere nahiko kezagarria da;

erabilitako terminologiaz gain, sei hilabeteko itxaron-epea ezartzen baita. Gainera, eskatzaileak froga-bitartekoak aurkezteko derrigortasuna ezartzen du aurreproiektuak, baita epaileak beharrezkoak kontsideratzen dituen bestelako frogak eskatzeko gaitasuna, nahiz eta ez den zehazten zer den frogatu beharrekoa. Beraz, nahiz eta aurreproiektuak aurrerapen garrantzitsua burutu duen trans pertsonen genero-identitaterako eskubidearen garapenean, genero autodeterminazio printzipioaren aplikazio oso baten beharra falta da, esparru guztietara heltzen dena.

4. Genero-binarioa ezartzen duen erregistro-sistemaren jarraitasunak emakumezkoa edo gizonezkoa ez den beste genero batekin identifikatzen diren pertsonen eskubideen urraketa eragiten du, baita intersexualak diren pertsonenak ere. Gaur egun, geroz eta gehiago dira genero tradizionalak ez diren beste genero batekin erosoago sentitzen diren pertsonak, Espainiako ordenamendu juridikoaren aldeko babesa eta errekonozimendua gai honi buruz beharrezkoa delarik. Zentzu honetan, Europako herrialde ezberdinetako ordenamendu juridikoek dagoeneko kolektibo honentzako aukerak eskaintzen dituzte, nortasun dokumentazio ofizialetan sexu-aipamena “zuriz” ezartzeko aukera emanez edo “X” bezala agertzeko aukera zabalduz batik bat.
5. Estatu mailan trans pertsonen eskubideak arautzen dituen lege bakarra 3/2007 Legea izanik, oraindik indarrean jarraitzen duena, AAEE-k behartua ikusi dute bere burua kolektibo honen eskubideen gaineko arauketa burutzerara, bere eskuduntzei jarraiki. Zentzu honetan, Berdintasun Ministeritzak aurkeztutako aurreproiektua denboran gehiegi luzatu izan da, eta oraindik bere izapidetza hasi berri du legebiltzarrean. Kontuan izan behar dugu gaur egun sexu-aipamenaren erregistro-zuzenketa arautzen duen legea 2007. urtekoa dela eta nahiz eta ENZO-ren Instrukzioarekin eta Espainiako auzitegien jurisprudentziarekin eguneratzen joan den, presazkoa da trans pertsonen eskubideak arautzen dituen estatu mailako lege baten sorrera.
6. Trans pertsonen eskubideen gaineko arauketa historian zehar oso mugatua izan da, duela urte gutxi arte transexualitatea gaixotasun bat bezala kontsideratzen zelarik Europa mailan. Gutxinaka kolektibo honen eskubideen errekonozimendua ematen ari da transexualitatearen normalizazioa gizartean bultzatuz. Hala ere, oraindik asko geratzen da kolektibo honen eskubideen errekonozimendu osoa lortzeko; honen adibide argia dugu BJKO-k aurreproiektuari buruz burututako txostena.

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. Doktrina

- ALVENTOSA DEL RÍO, Josefina: “La regulación de la identidad de género en las Comunidades Autónomas”, *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 2015, 745-760 orr.
- AZNAR DOMINGO, Antonio, SANZ GONZÁLEZ, Alicia: “El cambio de nombre y sexo en el Registro Civil y la disforia de género”, *Revista de Jurisprudencia*, 2021, orri gabe.
- BENAVENTE MOREDA, Pilar: “Menores transexuales e intersexuales. La definición de identidad sexual en la minoría de edad y el interés superior del menor”, *RJUAM*, 2019, 273-316 orr.
- BUSTOS MORENO, Yolanda: “La legitimación de los menores de edad a los efectos del reconocimiento legal de su identidad de género. Estado de la cuestión tras la Sentencia del TC 99/2019, de 18 de julio de 2019”. *Derecho Privado y Constitución*, 2020, 79-130 orr.
- CARRIÓN VIDAL, Almudena: “Transexualidad y menores”, *Revista sobre la infancia y la adolescencia*, 2020, 47-61 orr.
- DE LORA, Pablo: *El laberinto del género: sexo identidad y feminismo*, Alianza, Madril, 2021.
- DURÁN AYAGO, Antonia: “Consideraciones sobre el borrador de anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans”, *The conversation*, 2021, orririk gabe.
- ESTEVE ALGUACIL, Laura, NONELL i RODRÍGUEZ, Arnau: “Análisis del Anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI”, *InDret*, 3.2021, 267-290 orr.
- GONZALEZ HERNANDEZ, Rut: “Comentario de la Sentencia del Tribunal Supremo de 17 de diciembre de 2019 (685/2019)”, *Comentarios a las Sentencias de unificación de doctrina: civil y mercantil*, 2019, 387-398 orr.

- LAMM, Eleonora: "Identidad de género. Sobre la incoherencia legal de exigir el sexo como categoría jurídica", *Actualidad Jurídica Iberoamericana*, 2017, 230-278 orr.
- LITARDO, Emiliano: "El derecho a la identidad de género. Interpretación y desafío de la Ley 26743". *Revista de Actualidad. Derecho de familia*, 2018, 19-63 orr.
- PALAU ALTARRIBA, Xabier: *Identidad sexual y libre desarrollo de la personalidad*, Doktore-tesia, Universitat de Lleida, LLeida, 2016.
- SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: "El derecho a la identidad sexual de las personas menores de edad", *ReDCE*, 2019, orri gabe.
- SALAZAR BENÍTEZ, Octavio: "La identidad de género como derecho emergente", *Revista de Estudios Políticos*, 2015, 75-107 orr.
- SANCHEZ FREYRE, Juan Manuel: "La mayoría de edad como requisito para la rectificación registral del sexo y el nombre: una cuestión de derechos fundamentales", *Revista sobre la infancia y la adolescencia*, 2018, 39-52 orr.
- SILLERO CROVETTO, Blanca: "La rectificación registral del sexo y nombre de niñas, niños y adolescentes trans: presente y futuro", *Revista de Derecho Civil*, 2020, 141-172 orr.

6.2. Jurisprudentzia

- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpena: Christine Goodwin vs. Erresuma Batuak (GEEA/2002/181176).
- Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren ebazpena: L. vs. Lituania (GEEA/2007/56).
- Konstituzio Auzitegiaren 99/2019 ebazpena, abuztuaren 12koa (ECLI:ES:TC:2019:99).
- Konstituzio Auzitegiaren 64/2019 ebazpena, maiatzaren 9koa (BOE-A-2019-8645).

- Konstituzio Auzitegiaren 60/2010 ebazpena, otsailaren 7koa (ECLI:ES:TC:2010:60).
- Auzitegi Gorenaren 685/2019 ebazpena, abenduaren 17koa (ECLI:ES:TS:2019:4217).
- Auzitegi Gorenaren 5818/2007 ebazpena, irailaren 17koa (ECLI:ES:TS:2007:5818).
- Auzitegi Gorenaren 8700/1987 ebazpena, uztailaren 2koa (ECLI:ES:TS:1987:8700).
- Huescako Probintzia Auzitegiaren 12/2020 ebazpena, urtarrilaren 28koa (ECLI:ES:APHU:2020:23).
- Tolosako Lehenengo Instantziako Hirugarren Epaitegiaren 2015eko urriaren 28ko autoa.
- Lugoko Erregistro Zibilaren 2015eko martxoaren 18ko autoa.

6.3. Web orrialdeak

- Yogyakartako printzipioak:

<https://www.refworld.org/cgi-bin/tehis/vtx/rwmain/opendocpdf.pdf?reldoc=y&docid=48244e9f>

[2](#)

- CHRYSALLIS. “Novedades en la rectificación del sexo registral de menores transexuales”:

<https://chrysallis.org/novedades-en-la-rectificacion-del-sexo-registral-de-menores-transexual-es/>

- ELDIARIO. “Calvo frena la Ley Trans porque “no está preparada” ante un nuevo intento de Igualdad de llevarla al Consejo de Ministros”:

https://www.eldiario.es/sociedad/calvo-argumenta-ley-trans-no-preparada-nuevo-igualdad-llevarla-consejo-ministros_1_7264693.html

- FELGTBI+. “El CGPJ cierra con su informe el debate jurídico sobre la autodeterminación de género”:

<https://felgtb.org/blog/2022/04/20/el-cgpj-cierra-con-su-informe-el-debate-juridico-sobre-la-autodeterminacion-de-genero/>

- PODER JUDICIAL ESPAÑA. “Informe sobre el Anteproyecto de Ley para la igualdad real y efectiva de las personas trans y para la garantía de los derechos de las personas LGTBI”:

<https://www.poderjudicial.es/cgpj/es/Poder-Judicial/Consejo-General-del-Poder-Judicial/Actividad-del-CGPJ/Informes/Informe-sobre-el-Anteproyecto-de-Ley-para-la-igualdad-real-y-efectiva-de-las-personas-trans-y-para-la-garantia-de-los-derechos-de-las-personas-LGTBI->

- COMISIÓN EUROPEA. “Legal gender recognition in the EU: the journeys of trans people towards full equality”:

https://ec.europa.eu/info/files/lgbti-study-transgender-people_es